

# Trantsiziozko justizia: dilemak eta kritika feminista

Irantzu Mendia Azkue

Lan-Koadernoak / Cuadernos de Trabajo • Hegoa, 59. zbk., 2012  
Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua

## Erredakzio Kontseilua

**Zuzendaria:** Patxi Zabalo  
**Idazkaria:** Mari José Martínez  
**Diruzaina:** Eduardo Bidaurratzaga  
**Kideak:** Elena Martínez Tola  
Jokin Alberdi  
Gloria Guzmán  
Amaia Guerrero

## Argitalpen Kontseilua

Alberto Acosta. FLACSO, Quito (Ekuador)  
Iñaki Bárcena. Parte Hartuz, UPV/EHU  
Roberto Bermejo. UPV/EHU  
Carlos Berzosa. Madrilgo Unibertsitate Komplutensea  
Cristina Carrasco. Bartzelonako Unibertsitatea  
Manuela de Paz. Huelvako Unibertsitatea  
Alfonso Dubois. Hegoa, UPV/EHU  
Caterina García Segura. Pompeu Fabra Unibertsitatea  
Eduardo Gudynas. CLAES, Montevideo (Uruguay)  
Begoña Gutiérrez. Zaragozako Unibertsitatea  
Yayo Herrero. Ecologistas en Acción  
Mertxe Larrañaga. Hegoa, UPV/EHU  
Carmen Magallón. Fundación Seminario de Investigación para la Paz  
Carlos Oya. School of Oriental and African Studies, University of London (Erresuma Batua)  
María Oianguren. Gernika Gogoratuz  
Jenny Pearce. University of Bradford (Erresuma Batua)  
Itziar Ruiz-Giménez. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa  
Bob Sutcliffe. Hegoa, UPV/EHU  
José M<sup>a</sup> Tortosa. Alacanteko Unibertsitatea  
Koldo Unceta Satrustegui. Hegoa, UPV/EHU

*Hegoa lan-koadernoak* aldizkako argitalpena da, Euskal Herriko Unibertsitateko Hegoa izeneko Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenerako Buruzko Ikasketako Institutuak, 1989. urtetik aurrera argitaratu emandakoa, Diziplina arteko eta diziplina anitzeko ikuspegia izanik, argitalpen honek argitaratzen dituen azterketak ikerkuntza berezi, enpiriko edo teoriko baten emaitza dira, eta giza garapeneraren eta lankidetzaren eraldatzailearen eremuko arazo, esparru analitiko eta jardueren buruzko alderdi zabal bat lantzen dute.

*Hegoa lan-koadernoak* aldizkariak izaera monografikoa du, urtean hiru aldiz argitaratzen da, eta ale bakoitza lan zehatz bati eskaintzen zaio, beste aldizkari batzuetako artikuluetan ohikoa dena baino hedadura zabalagoz. Paperean ateratzen da, baina euskarri elektronikoa ere eskura daiteke Hegoaren webgunean (<http://www.hegoa.chu.es>).

## Trantsiziozko justizia: dilemak eta kritika feminista

Egilea: Irantzu Mendia Azkue  
Itzulpena: Iñigo Gallastegi Zorrilla  
Hegoaren Lan-koadernoak • 59. zbk. • 2012  
Lege-gordailua: Bi-1473-91  
ISSN: 1130-9962

Hegoa  
[www.hegoa.chu.es](http://www.hegoa.chu.es)

UPV/EHU. Zubiria Etxea  
Lehendakari Agirre etorbidea, 81  
48015 Bilbo  
Tel.: 94 601 70 91  
Faxa: 94 601 70 40  
[hegoa@ehu.es](mailto:hegoa@ehu.es)

UPV/EHU. Carlos Santamaría zentroa  
Elhuyar plaza, 2  
20018 Donostia-San Sebastián  
Tel.: 943 01 74 64  
Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia  
138. posta-kutxa.  
Nieves Cano, 33  
01006 Vitoria-Gasteiz  
Tel. / Faxa: 945 01 42 87

Inprimatzea: Lankopi, S.A.  
Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

*Hegoa Lan-koadernoak* sailean argitaratzen diren artikuluz guztiak, Creative Commons lizentzia honekin argitaratzen dira: Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 3.0 España. Lizentzia osoa:



<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Finantzatzaileak:



Argitalpen honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren babesa ekonomikoa jaso du, *Gerra ondoko birgaitzea eta bake eraikuntza giza eskubideak eta genero ikuspegiak: justizia, konpontze eta memoria historikorako eskubidea* izeneko proiektuaren esparruan (2010).

# Trantsiziozko justizia: dilemak eta kritika feminista

**Irantzu Mendia Azkue.** UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Arloko irakaslea eta Hegoa Institutuko ikertzailea. Soziologian lizentziatua, Nazioarteko Ekintza Humanitarioan eta Gatazken Konponketan graduondotua, eta Garapenari buruzko Ikasketetan doktorea UPV/EHUtik hurrengo tesiarekin: *Gatazka ondoko bakearen eraikuntza; emakumeen erakundeak eta nazioarteko lankidetzaren arteko dibergentziak El Salvadorren eta Bosnia-Herzegovinan*. Euskal unibertsitate sistemaren Giza Segurtasun, Tokiko Giza Garapena eta Nazioarteko Lankidetzaren Ikerketa Taldeko (GIC10/128) kidea da eta baita Hegoa-Garapenari buruzko Ikasketak deritzon Formakuntza eta Ikerketa Unitatekoa (UFI11/40) ere. Garapena, gatazka eta bakearen erainkuntzaren arteko harremanak genero-ikuspegitik aztertzen dituzten ikerketa proiektuetan lan egiten du, eta gaia horren inguruko zenbait argitalpenen egilea da.



Jasoa: 2012/10/22

Onartua: 2012/12/27



## Laburpena

Trantsiziozko justiziak nazioarteko arreta gero eta handiagoa jaso du laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, batez ere gatazken prebentzioa eta bakearen eraikuntzaren inguruko eztabaida teoriko eta praktikoen testuinguruan. Bereziki deigarria da, eztabaida horietan, gatazka armatuen eta errepresio denboraldien ondoren biktimen egiarako, justiziarako eta konpontzerako sarbidean generoak duen eragina kontuan ez hartzeko joera. Horixe da, hain zuzen ere, kritika feministaren ardatza trantsiziozko justizia prozesuei. Kritika hori, ikerkuntzan eta baita emakumeen kontrako krimenen zigorgabekeriaren aurrean erresistentzia aktibo modu ezberdinen artikulazioan ere oinarritzen da.

**Gako-hitzak:** trantsiziozko justizia, feminismoa, genero-ikuspegia, emakumeen kontrako indarkeria, zigorgabekeria, erresistentziak.

## Resumen

La justicia transicional ha sido objeto de una atención internacional creciente desde la década de los noventa, en especial en el marco de los debates teóricos y prácticos sobre la prevención de conflictos y la construcción de la paz. Uno de los aspectos que más llamativamente tiende a quedar fuera de esos debates es la incidencia que tiene la variable de género en el acceso de las víctimas a la verdad, la justicia y la reparación tras los conflictos armados y los periodos represivos. Este es el eje sobre el que pivota la crítica feminista de los procesos de justicia transicional, una crítica fundamentada en la investigación y en la articulación de formas de resistencia activa frente a la impunidad de los crímenes contra las mujeres.

**Palabras clave:** justicia transicional, feminismo, perspectiva de género, violencia contra las mujeres, impunidad, resistencias.

## Abstract

Since the nineties, there has been an increase in international attention to transitional justice, especially within the framework of the theoretical and practical debates on conflict prevention and peacebuilding. Strikingly, one of the aspects that tends to be left out of the main debates is the influence that gender has on victims' access to truth, justice and reparation after armed conflicts and periods of repression. This is at the heart of feminist critique of transitional justice processes, a critique that is based on research as well as on the promotion of forms of active resistance to impunity for crimes against women.

**Key words:** transitional justice, feminism, gender perspective, violence against women, impunity, resistances.



# Aurkibidea

1. Sarrera	7
2. Trantsiziozko justiziaren adierazpen teoriko eta praktikoak	9
2.1. Definizioa	9
2.2. Aplikaziorako bitartekoak	10
2.2.1. Epai-prozesuak	10
2.2.2. Egiaren Batzordeak	11
2.2.3. Kalteak konpontzea	12
2.2.4. Erreforma instituzionalak	13
2.3. Egia, justizia eta adiskidetzearen arteko tirabirak, edo trantsiziozko justizia zatikatua	14
3. Eta emakumeak zer? Kritika feminista trantsiziozko justiziari	17
3.1. Emakumeen kontrako indarkeria gatazka armatuetan	17
3.2. Generoko joera partzialak trantsiziozko justizian	19
3.2.1. Emakumeak egia bilatzeko prozesuetan	20
3.2.2. Emakumeek justizia lortzea mugatzen duten faktoreak	21
3.2.3. Kalteak konpontzea genero-ikuspegitik	22
4. Erresistentzia feministak trantsiziozko justiziaren esparruan	25
4.1. Gatazka armatuetan gertatutako emakumeen giza eskubideen urraketen inguruko ikerketa	25
4.2. Bizirik dirauten biktimei zuzendutako laguntza psikosoziala	26
4.3. Auzitegi sinbolikoak	26
4.4. Emakumeen oroimena berreskuratzea	28
4.5. Kalteen konpontze integrala	28
5. Amaierako iruzkinak	31
Bibliografia	33





## I. Sarrera

Azken urteotan, Hegoan, garapenaren, indarkeriazko gatazken eta bakearen eraikuntzaren arteko harremanak ikertzeko ahaleginak egiten ari gara. Lan koaderno hau eremu horretan kokatzen da. Lan honen oinarrian dagoen ikerketa interes konkretua emakumeak gerran eta gerraosteko berreraikuntzan ekintza politiko eta sozialaren subjektu gisa aztertzea da, analisi teoriko eta enpirikoa eginez. Horretarako, analisiak genero-ikuspegia barneratzen du eta ikuspegi feministan oinarritzen da.

Ikusten dugunez, maiz, nazioarteko lankidetzaren iniziatibak martxan jartzen dira gatazka armatua eta giza eskubideen urraketa larriak pairatzen ari diren edo pairatu dituzten herrietan. Orokorrean, herri horietako pertsonak pobretuenak izan ohi dira eta indarkeria honen inpaktuek eragina dute euren bizitzan. Dena den, garapen politiken eta programen plangintza, askotan, huts historiko moduko batean egiten da; hau da, indarkeriak biztanleengan izandako ondorio txarrak, bai maila pertsonal eta familiarrean bai erki-dego eta nazio-mailan, alde batera utzita.

Gainera, garapenaren azterketa eta plangintzan beti ez da kontuan hartzen indarkeria armatuak ekarritako ondorioetasuna. Are gutxiago hartzen da aintzat gatazkek pertsonengan duten inpaktuen faktore erabakigarria dela generoa. Ikerketa feministak frogatu bezala, genero-desberdintasunen ondorioz, emakumeek indarkeria egoera espezifikoak pairatzen dituzte gerran, baita gerraosteko baldintza ekonomiko, sozial eta politiko latzak ere.

Trantsiziozko justizia, gatazka armatuetan eta errepresiozko erregimenetan gertatutako giza eskubideen urraketa larriei aurre egiteko eta bakea eta demokrazia sendotzeko gizarteek erabiltzen duten zuzenbide - eta politika-mekanismo multzoan datza. Azken hamarkadetan, Nazioarteko Zuzenbidean aurrera egin da. Alabaina, oraindik ere, herri gehienetan, indarkeriaren inguruan ahazte eta isiltze politikak ezartzen dira eta zigorgabetasun orokorra da nagusi. Emakumeen kontrako krimenei dagokienez, zigorgabetasuna larriagoa da. Honek, iraganeko krimenen inguruan emakumeek duten egia, justizia eta konpontzerako eskubidea urratzen du eta, gaur egun ere, euren eskubideak erabiltzea oztopatzen du. Zentzu horretan, feminismoak galdera garrantzitsuak egin ditu, batik bat, hauek: Zer nolako lotura dute gatazkan zehar izaten den emakumeen kontrako indarkeriak eta gerraostean izaten denak? Zer nolako eragina du garapen politiketan eta, konkretuki, emakumeen garapenean, gatazka ostean nagusitu ohi den zigorgabetasun orokorrak?

Era berean, maizenik, gatazka armatuen ostean, birgaitze sozialari lotutako alderdiak, hala nola, erkidego - eta gizarte-ehuna berreskuratzea, egia ezagutzea, justizia eta konpontzea lortu ahal izatea, bigarren mailan geratzen dira herrien berreraikuntzan; aldaketa politiko-instituzionalen eta ekonomia berrindartzeko neurrien atzetik. Hain zuzen ere, gizarte berreraikitzea gizartearen oinarri demokratikoak berrezartzeari lotuta dagoen lana da, non emakumeek rol garrantzitsua duten. Hauen lanaren barruan giza eskubideen defentsa, genero-ikuspegia duen justizia aldarrikatzea

eta oroimen historikoa berreskuratzea dago. Azken urteotan, nazioarteko erkidegoa hasi da emakumeek bakearen eraikuntzan duten rola aintzat hartzen (2000. urteko Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena kasu); baina trantsiziozko justiziaren esparruan emakumeen erakundeek duten sostengu eta laguntza eskasa da.

Lan honen bitartez, heldu nahi diegu, lehenik, trantsiziozko justiziaren definizio, mekanismo eta tirabira edo eztabaida teoriko eta praktikoa nagusiei. Honen bidez, bigarrenik, feminismoak esparru honetan

egindako kritikei hurreratu ahal izango gara. Kritika hauek, emakumeek egia, justizia eta konpontzea lortzeko pairatzen duten desberdintasun nabariari dagozkio. Azkenik, zigorgabetasunari aurre egiteko feministik proposatutako erresistentzia moduak aurkezten ditugu. Hala, azpimarratu nahi dugu, emakumeak, gatazkan gertatutako indarkeriaren biktima izateaz aparte, protagonistak ere badirela giza eskubideen defentsan eta justiziadun bake baten eraikuntzan.

## 2. Trantsiziozko justiziaren adierazpen teoriko eta praktikoak

### 2.1. Definizioa

Trantsiziozko justiziaren definizio gehienak bat datoz zenbait alderditan: lehenik, diktadura edo gatazka armatu baten ostean herri bat autoritarismotik demokraziara, edota gerratik bakera igaro dadin bilatzen duen prozesua da; bigarrenik, iraganean gertatutako giza eskubideen urraketak konpondu behar den indarkeriazko ondarea diren heinean, trantsizioak urraketa hauei aurre egitea eskatzen du; eta hirugarrenik, igarotze honek forma ezberdinak izan ditzakela, hau da, ez dagoela forma unibertsalik, faktore juridiko, politiko eta etikoen araberako estrategia desberdinak baizik.

Nazio Batuen Idazkari Nagusiak *Zuzenbide Estatua eta trantsiziozko justizia gatazkak dituzten edo izan dituzten gizarteetan* izeneko txostena bidali zuen Segurutasun Kontseilura 2004ean. Horretan, trantsiziozko justiziaren definizio hau ematen da: “abusuz betetako iraganak sortutako arazoak konpontzearen gizarte bategen egiten dituen saiakeren lotutako prozesu eta mekanismo multzoa; erantzuleek kontu eman dezaten lortzeko, justizia laguntzeko eta adiskidetzeari buruzko helburua duena” (Nazio Batuak, 2004: 6). Beste alde batetik, Hernando Valencia Villak antzeko definizioa eskaintzen du: “ankerkeriez eta zigorgabetasunaz betetako iraganarekin kontuak egin eta diktaduren, gerra zibilen eta zabalera eta luzeera handiko beste krisien biktimei justizia egiteko asmoarekin gizarteek burutzen dituzten prozesu politikoetatik sortutako teoria eta praktika multzoa, normaltasun demokratikoa lortu

edo berreskuratzeko helburua duena” (Valencia Villa, 2007: 1). Beste zenbait definizioek esanahia zabaltzen du eta iraganeko eta oraingo indarkeriaren aurrean trantsiziozko justiziak duen rola aipatzen du definizio honen bidez: “gatazka bortitzetan edo diktaduratan murgilduta dauden edo egon diren gizarteak bake iraunkorra, demokrazia eta giza eskubideen errespetua dagoen egoera baterako trantsizioa egiten laguntzeko helburua duten praktika, konpontze intituzional eta gizarte-ingenieria teknika multzoa, zuzenbide internazionalak jarritako mugen barruan” (Forcada Barona, 2011: 9).

XX. mendeko 80ko hamarkada amaieraz geroztik, Berlineko harresia erori eta Latinoamerikako eta Afrikako hainbat diktadura eta gatazka armatu amaitu eta gero, trantsiziozko justiziaren inguruko interesa haunditu zen. Horrek hainbat arrazoi izan dezake. Alde batetik, bizirik iraun duten biktimen eta giza eskubideen urraketan biktimen senideen irmotasuna funtsezkoa izan da, hauek biziki eskatu baitute gertatutakoaren aitortza publikoa, arduraren penal eta politikoak zehaztea eta pairatutako kalte konpontzea.

Bestetik, Gerra Hotza amaitzean, Nazio Batuek nazioarteko bake eta segurtasunaren inguruan zuten rola eraldatu zen eta “gatazka ondoko bakearen erakuntza” ardatz nagusietako bat bihurtu zen. Hamarkada horrez geroztik, Nazio Batuen bake operazioak kopuruan eta garrantzian handitu ziren, erakundearen jardura nagusia bilakatuz. 1989 eta 1993 artean

bakarrik, zortzi bake operazio jarri ziren martxan gerra zibilak amaitu berri zuten zenbait herritan (Namibia, Nikaragua, Angola, Kanbodia, El Salvador, Mozambique, Liberia eta Ruandan). Operazio hauek su-eten hauskor batetik bake egonkorrera igarotzeko laguntza eskaintzea zuten helburu (Paris, 2004).

Horrela, nazioarteko laguntza politikak gerra osteko errehabilitazio eta gatazken prebentzio helburuak barne hartzen ari ziren eta, testuinguru horretan, trantsiziozko justizia “bake eraikuntza proiektu globala”ren osagai bilakatu zen (Pearce, 2005: 264). Orokorrean, proiektu horrek hainbat neurri ezberdin hartzen ditu, hala nola, hauek: a) demokratizazio eta instituzioen sendotzea; b) segurtasun sektorearen erreforma; c) liberalizazio ekonomikoa eta egiturazko doikuntza; eta d) gizarteratzea. Azken hauen artean aipa daitezke, zehazki: barne errefuxiatuen eta lekualdatuen itzulera, birkokatzea, errehabilitazioa eta birgizarteratzea; gizarite ehuna berreskuratzea eta indarkeriaren eraginez traumatizatutako pertsona eta erkidegoen sendatze psikosoziala; gizaritearen parte-hartzea sustatzea bake eraikuntzan; eta gatazketan gertatutako giza eskubideen urraketen aurrean mundu mailan trantsiziozko justizia eta adiskidetze neurritzat jotzen diren egia, justizia eta kalteen konpontze ekin-tzak sustatzea (Martin Beristain, 2000 eta 2009).

## 2.2. Aplikaziorako bitartekoak

Orain arte, nazioarteko eremuan diseinatu eta erabili izan dira trantsiziozko justiziaren tresna multzoak sailkatzeko era ezberdinak daude. Orokorrean, lau

ardatzetan biltzen dira: a) zigor-prozesuak; b) egia bilatzea; c) kalteak konpontzea; eta d) erreforma instituzionalak. Era berean, ohikoa da justizia ordainarazlea eta justizia leheneratzailearen arteko bereizketa: lehenengoaren barne, nazioarteko, nazio-mailako eta tokiko prozedura penalak, eta bigarrenaren barne, judizialak ez diren mekanismoak, hala nola, egia eta adiskidetzearen batzordeak eta konpontze programak (Forcada Barona, 2011: 9).

### 2.2.1. Epai-prozesuak

Auzipetzea da giza eskubideen urraketen ardura penalak zehazteko baliabide nagusia. Kasu batzuetan nazio-mailako justizia sistemai dagokie aritzea eta, beste zenbait kasutan, eskumen nazionalak ez dutenean genozidioak, gerrako krimenak edo gizadiaren kontrako krimenak epaitzeko borondaterik edo gaitasunik, nazioarteko justizia penalaren bitartekoak aritzen dira. Gaur egun, bitarteko horien artean, hauek daude: Nazioarteko Zigor Auzitegia<sup>1</sup>, Nazio Batuen *ad hoc* auzitegiak<sup>2</sup>, auzitegi hibridoak<sup>3</sup>, eta nazio-mailako auzitegiak eskumen unibertsalaren printzipioaren aplikazioan.

Zuzenbideko ikuspegitik, giza eskubideen urraketa larrien erantzuleak auzipetzea lege-agindua litzateke. Hau da, Nazioarteko Zuzenbidearen hastapenak gerrako krimenen eta gizadiaren kontrako krimenen biktimei justizia eskubidea bermatzera zuzenduta daude estatuen aldetiko baiezko ekintzen bidez. Beraz, hauek ezin diote uko egin justizia emateko beharrari<sup>4</sup>. Legezketasunaz gain, zigor-prozesuetan prebentzio irizpidea ere hartzen da kontuan; izan ere,

<sup>1</sup> 1998ko Erromako Estatuaren bidez sortutako auzitegia, 2002ko uztailaren 1ean indarrean sartu zena. Esan liteke Auzitegi honek trantsiziozko justiziaren gainean dagoen nazioarteko adostasun berria irudikatzen duela. Hala ere, salbuespenik ere badago, hain zuzen Amerikako Estatu Batuak, hauek auzitegi honen eraketaren kontra azaldu baitziren. Batuak, hauek auzitegi honen eraketaren kontra azaldu baitziren.

<sup>2</sup> Jugoslavia ohiarako Nazioarteko Zigor Auzitegia (1993), 1991etik aurrera Jugoslavia ohian gertatutako nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien erantzuleak epaitzeko sortua; eta Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegia (1994), 1994ko urtarrilaren 1 eta abenduaren 31 artean Ruandan eta ondoko Estatuaren gertatutako genozidioaren eta gizadiaren kontrako krimenen erantzuleak epaitzeko eratu. Tresna hauen aurrekari argienak Nürembergeko eta Tokioko Nazioarteko Auzitegi Militarrak izan ziren, Bigarren Mundu Gerrako irabazleek gerrako eta gizadiaren kontrako krimenen egileak epaitzeko eratu zituztenak.

<sup>3</sup> Nazioarteko eta nazio-mailako elementuez osatutako auzitegi mistoak dira, adibidez, Sierra Leona, Timor-Leste eta Kanbodian eratuak.

<sup>4</sup> Nazioarteko Zuzenbidearen esparruan, judizioz kanpoko ekzekuzioak, tortuta, desagertzeak eta atxiloketa zuzengabe luzeak bezalako zenbait giza eskubideen urraketek gerrako krimen edo gizadiaren kontrako krimen izaera eskuratzen dute nahita, zabalki eta sistematikoki egiten direnean. Kasu hauetan, biktimek -eta euren familiek- berariaz ezarritako prozesu normal edo formalen bidez justizia lortzeko eskubidea dute; “egiarako eskubidea” dute; kalte-ordain material eta moralak lortzeko eskubidea; eta gizariteak, oro har, indar armatu eta segurtasun-indar berrituak izateko eskubidea du (Méndez, 2000: 128).

giza eskubideen urraketa larrien erantzuleak zigortzea abusuak ekiditzeko disuasio-neurria izan daitekeela uste da. Honi lotuta, ardura kriminalak zehaztea ezinbesteko baldintza bezala agertzen da benetan demokratikoa den eta, hortaz, hiritar guztiek justizia lortzeko aukera bera izan dezaten bermatzen duen sistema lortze aldera.

Mekanismo ordainarazleen kontrako argudioak, legalak baino, politikoak izan ohi dira eta, orokorrean, auzipetzeek trantsizio demokratiko prozesuak arriskuan jartzeko posibilitatea aintzat hartzen dute (Harris eta Reilly, 1998). Funtsean, bide judizialak jazarpen legala paira dezaketen sektoreen oposizioa sortuko lukeela argudiatzen da. Hau da hainbat estaturen kasua, non giza eskubideen urraketen erantzule diren armadek eta segurtasun indarrek, euren askatasun pertsonala eta segurtasun instituzionala arriskuan ikusiz gero, gobernu berria ezegonkortu eta ezerezteko botere nahikoa gordetzen duten. Hala, bada, Andrew Rigbyren arabera (2001), justizia penalaren aldeko aukera hainbat faktorek erabakitzen du, hala nola, biztanleriaren gehiengoaren eskaerak giza eskubideen urraketen ardura kriminalak exigitzeko, eta gobernu berriaren konfiantzak egonkortasun sozial eta politiko arriskuan jarri gabe justizia bilatu ahal izateko. Normalean, dio, gobernuak herritarren gehiengoaren sostengua duenean lortzen da konfiantza hori.

Zigor-arloko prozeduren aurrean errezeloa agertzen duen beste zenbait argudioren arabera, ardura legal osoa bilatzerakoan badago hainbat eragozpen praktikoa, esaterako, krimenetan zuzenean edo zeharka parte hartu duten pertsona guztiak auzitaratzeko baliabideak. Adibidez, zailtasun hau agerian jarri izan da Ruandaren kasuan, biztanleriaren zati handi bat izan baitzen 1994ko genozidioaren erantzule. Seinalatutako zailtasunetako beste bat hau da: batzuetan nekez bereizten dira errudun eta errugabeak eta biktimak eta hiltzaileak. Berlineko harresia erori ostean, adibidez, Txekiar Errepublikako presidentea zen Vaclav Havel, hasiera batean, gizartearen “purgaketa” prozesua abiatzeko errezeloak izan zituen, ezaguna zuelako aurreko gobernu aparatua pertsonak

“kolonizatze” eta estatuaren errepresioaren lagun bihurtzeko gai zela (Rigby, 2001: 5). Azkenik, adiskidetzera sustatu ordez, neurri judizial eta zigortzaileek gatazka berri eta gatazkak banandutako gizarreak are gehiago banandu ditzaketela argudiatzen da (Mertus, 2000).

Horrela, nazioartean prozesamendu legala sostengu gutxien izan duen trantsiziozko justiziaren mekanismoa da. Honen ondorioz, giza eskubideen kontrako krimenei dagokienez, zigorgabetasun juridikoa edo zigor eza nagusitu ohi dira. Zigorgabetasun hau beste motako mekanismo judizialen bidez izaten da, esate baterako, barkamen eta amnistia legeen bidez. Amnistia maila ezberdinetan eman ohi da herrialdeko egoera soziopolitikoaren eta honen sustatzaileak nortzuk direnaren arabera. Mutur batean amnistia osoa dago, hau da, muga gabeko barkamena. Hauek, maiz, trantsizioaren aurretik boterea uztera doan elite politikoak alde bakarrez dekretatutako legeak dira. Beste batzuetan, zigorgabetasuna boterea uzten duen elitearen eta buruzagi berrien arteko negoziazioen emaitza da. Azkenik, zigorgabetasuna lortzeko beste bide gisa, indar politiko guztiek aurreko erregimena defendatzen zituzten edo erregimenaren aurka krimenak egin zituzten pertsonak ez zigortzea erabaki dezakete. Honen adibide argia Espainiako kasua da, “talde-amnesia ariketa” edo “ahantzura itun” tzat jo ohi dena (Harris eta Reilly, 1998: 273)<sup>5</sup>.

### 2.2.2. Egiaren Batzordeak

Egiaren Batzordeak trantsiziozko justiziarik lotutako tresna erabilienetako bat bihurtu dira mundu mailan indarkeriazko iraganari aurre egin eta adiskidetzearen oinarriak ezartzeko. Adibideen artean, hauek: Argentinako Pertsonen Desagerpenaren Batzorde Nazionala (1993), Txileko Egiaren eta Adiskidetzearen Batzorde Nazionala (1990), El Salvadorreko Egiaren Batzordea (1993), edo Hegoafrikako Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordea (1995). Batzorde hauek, orokorrean, ez dute izaera edo eskumen juridikorik; aitzitik, -nazioarteko edo nazio-mailako iniziatiba dela bide- gatazka armatuetan edo larderiako erregimenetan gertatutako

<sup>5</sup> Ezin dugu ahaztu, dena dela, eliteek eraturako ituna izan zela. Mehatxu militarren bidez eta argudiatuz amnistiak bakarrik bermatuko zuela egonkortasun politikoa eta trantsizio baketsua, itun honek diktadura frankistaren delituak ez tali eta Franco hil eta 37 urtez dirauen zigorgabetasuna instituzionalizatzea lortu du.

indarkeria ekintza larriak aztertu eta ezagutarazteko aginduarekin sortzen dira. Era berean, gobernuari zuzendutako gomendioak sortzeko gaitasuna dute, hala nola, biktimek pairatutako kalteak konpontzeko neurriak eta giza eskubideen urraketak aitzina ekiditzeko iradokizunak.

Egiaren Batzordeek oroimena berreskuratzen laguntzen dute, nola gertaeren inguruko egia hala biktimek emozioen inguruko egia argitzea eta aintzat hartzea sustatuz. Hala, bada, batzorde hauek, funtsean, biktimei zuzentzen dira: hauek identifikatzea, aintzat hartzea, eta kalte-ordaina gomendatzea, haien atsekabea eta galera ahal den neurrian konpontze aldera. Priscilla B. Hayner-ek, 1994. urtean, ospe handia lortu zuen ikerketa konparatzailea egin zuen. Horretan, 1974tik aurrera sortutako hamabost batzorde erkatzen zituen eta ikusi ahal izan zuenez, kasu gehienetan, batzorde hauen txostenek biktimek eta beste jende asko aspaldidanik egiazat zutena baieztatzen zuten (Hayner, 1994). Hala ere, kasu guztietan abusuen larritasunaren aitormen ofiziala garrantzizko elementu bilakatzen zen biktimentzat (Scott, 1999: 354). Egiaren Batzordeek biktimek hitza zabaltzen dute, biktimek bizipenak isilean gorde edo desitxuratu izan ohi dira eta. Baina horrez gain, gizarte osoak gertatutakoari era kolektibo eta publikoan aurre egin dezan lortzeko gaitasuna ere badute.

Bere izaerari esker, mekanismo mota hau zigorgabetasun historikoari aurre egiteko baliogarri izan daiteke. Roberto Garretonen<sup>6</sup> arabera zigorgabetasun historiko horrek bi adar ditu, hots, hauek: “Lehenengo eta behin, historian *terrorearen urteetako gezur ofiziala* egia gisa ager dadin nahi dute: ‘borroka izan zen’; ‘Alderdi Komunistaren barneko lehia izan zen’; ‘bere buruaz beste egin zuen’; ‘tiro egin behar izan genion ihes egiten ari baitzen’ eta beste hainbat. Eta beste aldetik, ahanztura bilatzen da eta hau, historia errepikatzeko arriskua ekartzeaz aparte, biktimentzat alde mingarriena izan daiteke”. Hala, bere hitzetan, ahanztura hori ekiditzeko helburuari esker “zigorgabetasunaren kontrako borroka betiraunkorra” da, zigor penal edo politikoaz harago doalako (Garretón, 2004:94).

Herrialde gehienetan, Egiaren Batzordeek itxaropena sortu dute biktimek justizia eta kalteak konpontzeko eskaerei dagokienez. Alabaina, ez dute eskumenik esparru penalean eta, normalean, gobernuak ez dituzte aintzat hartzen haien iradokizunak. Ondorioz, askotan etsipena sortzen dute. Izan ere, orokorrean, Egiaren Batzordeak sortzen diren testuinguruetan, gatazka edo diktadura ondoko gobernuak ez dute gerrako krimenen edo gizadiaren kontrako krimenen erantzuleak epaitzeko borondaterik edo bitartekorik. Zentzu horretan, Andrew Rigbyren esanetan (2001: 90), ondorengo erregimententzat, egiaren batzordeak “aukera erakargarria dira: alde batetik, beste zenbait ekintzari atea irekitzen dion lehenengo urrats gisa; bestetik, herriak eskatzen duen erantzunkizunari nahiko kostu gutxiz erantzuteko eta, hala, iraganeko abusuen kontua ixteko era gisa. Batzordeek lehenengo ikuspegia azpimarratu badute ere, errealitatea bigarrenetik hurbilago ibili ohi da”.

### 2.2.3. Kalteak konpontzea

Trantsiziozko justiziaren ikuspegitik, giza eskubideen urraketek eragindako kalte konpontzeko sortu diren adierazpen ezberdinek gero eta interes handiagoa piztu dute. Konpontze neurriak biktimek pairatutako kalte aintzat hartzearen emaitza dira, eta bai ordain materialen bitartez (sari ekonomikoak, dohako tratamendu mediko edo psikologikoa, hezkuntza eta etxebizitzarako maileguak, etab.) bai simbolikoen bitartez (iragana gogora ekartzen duten oroimenezko eraikuntzak, museoak, ospakizun ofizialak, zeremoniak eta gizarte ekitaldiak) buru daitezke.

Nazio Batuen Asanblada Orokorrak, 60/147 Ebazpenean, bost konpontze mota bereizten du (Nazio Batuak, 2005):

- a) *Lehengoratzea*, biktima bere eskubideen urraketaren aurreko egoerara itzultzea da. Honek, kasuaren arabera, askatasuna bueltatzea, giza eskubideak eta nortasuna, familiarreko bizitza eta hiritartasuna bermatzea; bizilekura itzultzea, lanpostua bueltatzea; eta/edo ondasunak atzera ematea exijituko du.

<sup>6</sup> Giza eskubideetarako Nazio Batuen goi mandatariaren bulegoko Latinoamerika eta Kariberako ordezkari ohia.

- b) *Kalte-ordainak*, giza eskubideen urraketaren emaitza diren eta ekonomikoki baliozta daitezkeen kalteak “behar den bezala eta sufritutako kalteari proportzionala den eran” ordaintzea da. Kasu honetan, kalteen artean hauek egon daitezke: kalte fisiko edo mentala; aukerak galtzea (bereziki, lan-aukerak, hezkuntza-aukerak eta gizarte-zerbitzuak); kalte materialak eta diru-sarrerak galtzea (galdutako irabaziak barne); kalte moralak; eta/edo laguntza juridiko edo adituen laguntzari, botikei eta medikuntza-, psikologia - eta gizarte-zerbitzuei lotutako gastuak.
- c) *Birgaitzea*, arreta mediko eta psikologikoari eta zuzenbide - eta gizarte-zerbitzuetan dago.
- d) *Gogobetetzea*. Valencia Villaren arabera (2007: 11), honen barne, hauek: etengabeko bortxaketak amaitzea; gertaerak egiaztatzea eta egia- ren onarpen publikoa; indarrez desagertutako pertsonak bilatzea eta identifikatzea; biktimen duintasunaren eta erreputazioaren leheneratzea publikoa; barkamena publikoki eskatzea honi lotutako erantzunkizun guztiak onartuz; bortxaketen erantzuleei zigor penalak eta disziplina-koak ezartzea; biktimen oroitzapena eta omenaldiak; eta eskola-liburuetan eta historia eta giza eskubideei buruzkoak diren unibertsitateko liburuetan krimenak jasotzea.
- e) *Ez errepikatzen bermeak*, gogobetetzeak bezala indarkeria sahiesteko neurriak hartzen ditu barne, esaterako: indar militar eta poliziaren kontrol zibila; prozesuaren bermeak errespetatzea eta barne prozedurak zuzenbide internazionalaren menpe egotea; justiziaren independentzia eta inpartzialtasuna indartzea; giza eskubideen defendatzaileak, kazetariak eta laguntza - eta osasun-zerbitzuko langileak babestea; etengabeko hezkuntza giza eskubide eta zuzenbide humanitarioan; funtzionarioek jokabide kode eta arau etikoak, bereziki, nazioarteko arauak errespetatzea; giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren kontrakoak diren legeak aldatzea.

Errealitatean, kalteak konpontzeko neurriak ez dira beti biktimen justizia eskubidearen osagaitzat hartzen. Zenbait kasutan, ez da uste prozesamendu legala eta egia- ren

ezagutza orokorra krimenei behar bezala aurre egiteko nahikoak izango direnik eta konpontze neurriak adiskidetasuna sustatzeko “baliabide gehigarri” gisa aurkezten dira. Konpontzea biktimen atsekabearen eta amorrua- ren adierazpide baketsua izan daitekeela uste denez, horren bidez hauen “birgizartratzea” eta gatazka bortitza gertatzeko aukerak murriztea bilatzen da.

Beste zenbaitetan, kalteak konpontzea justiziaren ordezkotzat jotzen da. Ricard Vinyes historialariaren arabera, biktimei justizia eskubidea ukatzen zaien egoeretan, estatuak, asko jota, talde konkretuen kalteak konpontzeko zenbait neurri ezartzen dituzte. Neurri hauek “uholdeek, haizeteek, suteek, ustekabearen ager- tutako amildegiek eragindako hondamendi naturalen biktimekin izandako irizpide eta jarrerekin [ezartzen dira], eta ez gizarteak eta instituzioen jazarpen eta hilketa proiektuak pairatu dituztenek behar dituzten irizpide eta jarrerekin. Mota honetako proiektu ins- tituzionalei ‘estatu terrorea’ ere deitzen zaie, eta ez dira hondamendi naturalak, biek suntsiketa, lastura eta hildakoak uzten badituzte ere” (Vinyes, 2011: 14).

#### 2.2.4. Erreforma instituzionalak

Trantsiziozko justiziaren mekanismo instituzional na- gusia arazketa da, hau da, giza eskubideen urraketan erantzuleak eta haien gaizkideak eragin handiko kargu publikoetan (armada eta polizia barne) aritzeko gaita- sunik gabe uztea.

Erdialdeko eta Ekialdeko Europako herrietan, adibi- dez, Berlineko harresia erori ondoren, trantsiziozko justiziaren esparruan aplikatutako neurri bakarra hura izan zen. Hala, bada, funtzionario asko, hala nola, polizia sekretuko agente eta berriemaileak, epaileak, irakasleak eta gobernuko funtzionario eta militarrek kargu publiko horietan aritzeko gaitasunik gabe utzi zituzten, baina ez zen haien kontra inolako zigor pe- nalik ezarri. Horri lotuta Theissen-en iritziz (2001), ez badago justizia lortzeko benetako ardurarik, neurri hauek justizia bidegabe bilaka daitezke; hain zuzen ere, erabaki politikoek gatazka eta gizartearen zatitzea sahiesteko gai ez den “sorgin-ehiza” sor dezakete.

Arazketek aparte, justizia-administrazioaren errefor- mak, konstituzioaren erreformak edo zuzenbide esta- tua sendotzeko instituzio berrien eraketa trantsiziozko justiziaren beste mekanismo instituzionalak dira.

Gorago aipatu bezala, demokratizaziora zuzendutako neurri hauek ohikoak dira gatazka ondoko bake erai-kuntzaren esparru globalean.

### 2.3. Egia, justizia eta adiskidetzearen arteko tirabirak, edo trantsiziozko justizia zatikatua

Trantsiziozko justizia prozesuaren inguruko teoria eta aplikazio formula gehienak ikusita, badirudi horretan herriek dikotomikoki aurkeztutako bi auziren artean aukeratzeari aurre egin behar diotela. Alde batetik, iraganean gertatutako giza eskubideen urraketak eta bortxaketak gogoratzea edo ahaztearen artean aukeratu eta, bestetik, abusu horien erantzulei zigorrak ezartzea ala ez ezartzea, eta hauek zer motakoak izan behar diren erabaki behar dute. Galdera hauen erantzunaren arabera horri dagokion trantsiziozko justiziaren mekanismoa aukeratu beharko litzateke. Ondorioz, justizia, egia eta konpontzea ez dira biktimaren justizia eskubidearen elementu zatiezinak, haien artean baztertzaila eta kontraesankorrak ere izan daitezkeen elementuak baizik.

Trantsiziozko justiziaren “zatiketa” hau nazioartean izandako esperientzia ezberdinetan ikusi ahal izan da. Latinoamerikan<sup>7</sup>, adibidez, herri gehienetan ezarritako formulak “justiziarik gabeko egia” motako eske-marekin bat etorri dira. 90ko hamarkadan, bakerako eta demokraziarako trantsizioen izaera negoziatuak eragin handia izan zuen gizarte horiek giza eskubideen urraketa larriez jositako iraganari heltzeko izan duten moduetan. Hau da, hainbat kasutan, krimenen egile zuzenek zein krimena pentsatu zutenek botere handia atxiki zuten eta trantsizioetan eragin handia izan zuten eta, beraz, testuinguru horietan aukera politikoak mugatuak izan ziren. Gehienetan, negozioazio desorekatu hauek giza eskubideen urraketen erantzuleen amnistia izan zuten emaitza, krimen bat ere zigortuko ez zelaren bermearekin.

Bereziki, biktimei, euren familiei eta giza eskubideen aldeko erakundeei esker, aldizka, justizia lehenera-

tzaileari, hain zuzen, egiarako eskubideari lotutako mekanismoak jarri ziren martxan. Biktimen eta giza eskubideen aldeko erakundeei behin eta berriz esan dute dela bakea eta adiskidetzeari lortzeko, funtsezkoa dela gertatutakoa ezagutzea eta argitzea, eta biktimen duintasuna eta oinazea aitortzea. Kasu gehienetan, honen emaitza Egiaren Batzordeak eratzea izan da. Izan ere, aipatu bezala, hauek gatazketan eta diktaduretan gertatutako krimenak ikertzeko sortzen dira<sup>8</sup>.

Dena den, errealtatean giza eskubideen urraketen erantzule diren armadak eta segurtasun indarrak zigorra jaso gabe “araztu” dira, eta biktimek justizia eta konpontzea jaso beharrean aurretik zekitena egiaztatu ahal izan dute. Beraz, krimenen erantzuleak izan dira prozesu hauetan probetxu handiena lortu dutenak. Roberta Bacic-en esanetan, Txileko Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordearen kasuan “batzordearen lanari onura handiena atera zioten bi agentziak gobernu berria eta armada izan ziren: gobernu berriari dagokionez, arazoari aurre egiten ari zitzaizola zirudienelako eta, hortaz, protesta maila murriztu zelako; armadari dagokionez, Batzordea ez zelako auzitegia eta, hortaz, ez zelako inor ez epaitu ez zigortu” (Bacic, 2002: 298).

Bestalde, giza eskubideetan, egiaren batzordeetan eta konpontze politikan aditua eta El Salvadorreko Egiaren Batzordearen zuzendaria den Patricia Valdez argentinarraren arabera, maiz, justiziaren ordez egia bilatzen da, giza eskubideen eremuan estatuek zer aplikatu aukeratzeko “menua” izango bailuten (Valdez, 2002). Hala ere, egia publikoki ezagutu izanak, nolabait, justizia ezartzera behartzen du estatua, beraz Egiaren Batzordeak giza eskubideen eta justizia ezartzearen arloko politika publikoen zatitza hartu behar dira (*Ibid.*). Beste era batera esanda, bakea eta adiskidetzeari lortzeko egiaren aitorten ofiziala beharrezko baldintza da, baina ez da nahikoa, horrez gain, biktimentzako justizia mekanismoak izan behar baitira. Latinoamerikan, azken urteotan hasi dira gerrako eta gizadiaren kontrako krimenen erantzuleen jazarpen legala burutzeko zenbait bide

<sup>7</sup> Larderiako zenbait erregimenek ezarritako terrore politikaren ondorioz, kontinentearen azken hamarkadetak historia giza eskubideen urraketa larri jositako dago. Urte askoz, desagertzeak, tortura sistematikoak eta judizioz kanpoko exekuzioak Estatuaren instituzio ezberdinek gauzatu zituzten: indar publikoek, inteligentzia unitateek eta egitura paramilitarrek edo heriotzaren eskuadroiek, hain zuzen.

<sup>8</sup> Latinoamerikan, adibidez, Egiaren Batzordeak herri hauetan eratu dira: Argentinan, Txilen, El Salvadoren, Haitin, Guatemalan, Panaman, Perun, Uruguain, Paraguain eta, orain dela gutxi, Brasilen.



zabaltzen, batez ere Giza Eskubideen Amerika arteko Gortea (CIDH gaztelerazko siglen arabera) bezalako eskualdeko mekanismo judizialen bidez, eta zenbaitetan jurisdikzio unibertsala aplikatzen duten nazio-mailako auzitegien bidez, Pinocheten kasuan gertatu bezala<sup>9</sup>.

Latinoamerikako eskarmentuaren bereizgarri den “justiziarik gabeko egia” formularekin batera, beste zenbait lekutan trantsiziozko justizia ezartzeko formula ezberdinak probatu dira, adibidez, Afrikan. Konkretuki, Ruandan, 1994ko genozidioaren ostean, neurri zigortzaileak baino ez dira ezarri, hauek inongo beste mekanismoekin bateratu gabe, eta horrek “adiskidetze gabeko justizia” motako eskema bat sortu du.

Herri horretan, Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegia ezartzeaz gain, gobernu berriak erabakitasunez bultzatu zituen nazio-mailako prozesu judizialak trantsizioan zehar. Hain larriak izan ziren genozidioan zehar egindako krimenak eta hain denbora laburrean (hilabete gutxitan), non beste edozeren gainetik justizia bilatu baitzen. Hasieratik uste zen ez zela lortuko adiskidetze nazionala, zigorgabetasunean oinarritutako kulturari justizia kriminalaren bidez aurre egiten ez bazitzaion. 1999 aurretik, 121.500 atxilotu epaiketaren zain zeuden 19 presondegi eta tokian tokiko 154 atxilotze puntutan banatuta. Hainbeste jende izanda, auzipetze prozesua arintzeko, 2002an, gobernuak usadiozko *Gacaca* sistema jarri zuen martxan. Sistema hau tokian tokiko auzitegi komunitarioetan oinarritzen da<sup>10</sup>. Susmagarri arruntei dagokienez, prozedura hau indarkeriak kaltetutako erkidego guztietan erabili zen, baina indarkeriaren buru eta antolatzaileak ohiko zigor jurisdikzioaren esparruan izan ziren epaituak<sup>11</sup>.

Edonola ere, zenbait azterketaren arabera, mekanismo judizialei emandako nagusitasunak egoera “jasezina” bihurtu eta adiskidetzea oztopatzen zuen giroa sortu zuen (Simon, 2002). Argudio nagusia hau da: zigor neurriek soilik ezin dute biktimen eta bizirik iraun dutenen beharrak eta itxaropena erabat bete. Egia esan, egia bilatzen duten neurriek ez bezala, auzitegiek kriminalean jartzen dute arreta, ez biktiman; hau da, jazarpen legalak eta epaiketek akusatuen ekintzetan ipintzen dute arreta eta, bitartean, biktimen sufrimendua esparru horretik kanpo geratzen da eta ez da ezartzen hauei duintasuna itzultzen lagunduko duen kalte-ordainik. Honen inguruan, Julie Mertus-en iritziz (2000), epe luze-ko sendakuntza eta gizartearen eraldaketa lortzeko mekanismo judizialen bidez lor daitekeen egia osagabea ez da nahikoa; garrantzitsua da espazio publikoak eratzea - adibidez, Egiaren Batzordeak-, non lekukoek eta bizirik dirauten biktimek esandakoa aditzen den eta oroimen kolektiboa berreskuratzeko proiektuak sortzen diren. Hortaz, justizia ordainkariarekin batera justizia leheneratzari dagozkion mekanismoak erabiltzea da gakoa, alegia, biktimengan eta euren osaketan arreta jartzen dutenak.

Azkenik, Hegoafrikaren kasua “hirugarren bide” baten adibidea da, Latinoamerikako “justiziarik gabeko egia” eskema eta Ruandako “adiskideterik gabeko justizia” eskema artean dagoena. Indarkeriak markatutako iraganari aurre egiteko eta adiskidetze politiko eta soziala sustatze aldera, Hegoafrikan erabilitako formula besteek duten zenbait muga gainditzen saiatzen den “hurbilketa paregabe”tzat jotzen da maiz. Hegoafrikaren kasua berezia da, izan ere, Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordeak apartheid garaian gauzatutako krimenen egileei *baldintzapeko amnistia* emateko gaitasuna zuen. Amnistia hau, errudunen eskura zegoen

<sup>9</sup> Augusto Pinochet generala atxilotua izan zen Londresen 1998ko urriaren 16an, Espainiako Auzitegi Nazionalak bere aurkako nazioarteko atxiloteta agindua luzatu eta gero. Salaketan, Chileko Estatu buru izan zeneko denboraldian espainiako zenbait hiritarren hilketaren arduradun izatea leporatu zitzaion (Nazioarteko Amnistia, 1998).

<sup>10</sup> “Gizarte harmonia” berreskuratzea bilatzen duen prozedura legala da eta horretan familia bateko edo ezberdinetako kideak dira pertsona edo talde arteko desadostasunak bukatzen dituztenak (Sarkin, 2001).

<sup>11</sup> Gacaca auzitegiek egindako jazarpen legalek eta epaiketek kritikak izan zituzten. Esaterako, Nazioarteko Amnistia-ren iritziz ebidentzia nahiko zegoen tokian tokiko auzitegiak justizia sumario eta bidegabearen eramaile bilaka zitezkeela pentsatseko. Erakundeak azpimarratu bezala, atxilotze baldintzak hobetu ezean eta epaitutako bakoitzak Zuzenbide internazionalaren arabera epaiketa izan ezean, nazioarteko erkidegoak prozesua sostengatzen utzi eta praktika horiek giza eskubideen urraketak zirela salatu behar zuen (Nazioarteko Amnistia, 2002).

gertaeren inguruko egia osoa aitortuz gero<sup>12</sup>. Horrez gain, Hegoafrikako Batzordeak Konpontze eta Birgaitze Batzordea hartu zuen barne. Honen eginkizuna, gobernuari gomendio politikoak egitea zen, biktimek sufritutako kalteak konpontzeko neurrien inguruan.

Hegoafrikako Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordeak zituen printzipio eta prozedurak, sinesmen kristautetan<sup>13</sup> oinarritzen ziren. Baina Afrikako tradiziozko justizia nozio batean ere bai. Azken hau, kriminalak zigortzearen gainetik, hauek gizarterako berreskuratzearen alde agertzen da, pertsonen arteko harremanak bere onera ekarriz<sup>14</sup>. Ikuspegi honen azpian dagoen logikaren arabera, biktima ez da birgaitu behar den bakarra, egilea ere birgaitu behar da, erkidegoan berrezartzeko aukera eskainiz. Justiziaren ikuspegi honek biktima eta erasotzailea berriz topatzeko abagunea sortu nahi du, honek erasoak kaltetutako giza harremana leheneratzea ahalbidetuko baitu.

Praktikan, ordea, justizia zigortzailearen aurrean justizia leheneratzailea hobestearekin batera, biktimei justizia auzitegietan eskatzeko eskubidea ukatu izan zaie. Hain zuzen ere, erantzunkizun legal osoa lortzeari eta, beraz, zigorra ezartzeari uko egin zaio eta hori izan da Hegoafrikako prozesuaren alderdi eztabaidatu eta kritikatuena. Izan ere, biktimen eta giza eskubideen aldeko erakundeen ustez, justizia zigortzailerik gabe adiskidetzea ez da posible. Ildo horretatik, zenbait

analistak barkamenaren kontzeptu deformatu horren balioa kolokan jartzen dute. Kontzeptu horrek justizia zigortzaile eta adiskidetze helburuaren arteko tirabira sortzen du eta, hala, bada, herrialdeko gutxiengo zuriak gehiengo beltzaz “samintasunean, gorrotoan edo erasoan ez erortzea [espero du], zenbateraino esplo-tatzen edo traumatizatzen zaien kontuan hartu gabe” (Botman eta Petersen, 1996: 67-68). Hegoafrikako prozesuak ere, hortaz, trantsiziozko justizia eredu zati-katua irudikatzen du, kasu honetan “justiziarik gabeko egia eta adiskidetzea” eskema baten baitan.

<sup>12</sup> Gainera, aitorpena Amnistiarako Batzordeak ezarritako irizpideekin bat etorri behar zen: hau da, gertaerak 1960 eta 1994 artekoak izatea; motibazio politikoak egotea (hauen barne, agindupean edo erakunde politiko baten izenean egindako ekintzen kasua, adibidez, apartheideko estatuaren izenean); eta erabilitako bitartekoak helburuaren arabera izatea.

<sup>13</sup> Hegoafrikako biztanle gehienek kristautzat dute euren burua, beraz adiskidetzearen interpretazio etiko eta teologikoak rol garrantzitsua izan du Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordearen printzipio eta prozedurei dagokienez (Botman eta Petersen, 1996: 7).

<sup>14</sup> Nozio honen jatorria Afrikako *ubuntu* filosofian aurkitzen dugu. Kontzeptu hau pertsonen arteko loturan oinarritzen da eta Hegoafrikako adiskidetze prozesuaren norabidean eragin handia izan zuen.

### 3. Eta emakumeak zer? Kritika feminista trantsiziozko justiziarri

Lan honen lehenengo atalean azaldutako guztia, hots, definizioa, mekanismoak eta trantsiziozko justizia ezartzean sortzen diren tirabirak ikusita, ondoriozta daiteke literatura espezialitatuari aurkitzen diren eztabaida eta argudio nagusiek itxurazko neutraltasun analitikoak erakusten dutela. Hau da, orokorrean, ez zaie garrantzia ematen gizarte bereizkeriaren faktore anitzi, esateko klase, etnia, adina eta generoari, nahiz eta hauek, gatazka armatu edo errepresio egoeretan, giza eskubideen urraketatik eragin handia duten. Era berean, ez da behar bezala aztertzen nola baldintzatzen duten gizarte-hierarkiaren faktore horiek biktimen egia, justizia eta konpontze eskubidea.

Trantsiziozko justiziaren eremuan, eta gatazken azterketan era zabalagoan, feminismoa saiatzen da “generoa, beste hainbat azterketa esfortzuekin bat egiten duen ikuspegi gisa erakusten” (Segura, 1998: 6). Generoa berraztertzearen dagokionez hutsuneak daude. Hala, bada, lehenik, helburua hutsuneak edukiz hornitzea da, generoa gatazken dinamika, emakumeen aurkako indarkeria modu espezifikoak, eta horren kausak eta ondorioak azaltzen duen alderdia baita. Bigarrenik, trantsiziozko justiziaren generoko joera partzialak argitzen laguntzen du feminismoak; baita, emakumeen eskubideen urraketan aurrean, joera partzial hauek egitarako, justiziarako eta konpontzerako eskubideetan duten eragina ere.

#### 3.1. Emakumeen kontrako indarkeria gatazka armatuetan

Azken hamarkadetan, azterketa feministek gatazkek emakumeengan eta genero-harremanetan duten eragina agerian utzi dute. Hala, bada, gerraren eta bere

efektuen inguruko literatura aberasten lagundu dute, literatura horretan ez baitzen aipatzen indarkeria kolektiboaren eragina ezberdina zela gizon eta emakumeengan. Gainera, feminismoak ez du aztertu genero eta gatazken arteko harremana ekintza militar eta belikoetan bakarrik, gatazken dinamiketan parte hartzen duen politika, ekonomia, gizarte eta kulturari lotutako alderdietan ere aztertu du.

Orokorrean, emakumeek gerran duten rola azterketan arabera, emakumeak biktima gisa irudikatzeak babesgabatasun eta ahultasun egoera batean kokatzen ditu, eta ikuskera honen ondorioz, ez da posible bai bakearen eraikuntzan duten rola azpimarratzea. Aldi berean, zenbait autorek ohartzen dutenez, azterketa hauen azpian biktimaren eta eragile sozialaren rola arteko dikotomia dago, eta dikotomia hori ez dator errealitatearekin bat: “Biktima dela aitortzeak ez du emakumearen ahalmena eta beste errealitate eta baldintzak baztertzen. Biktima izatea ez da, eskubideen ikuspegitik, minusbalotasuna; eskubideren baten urraketa sufritu duena biktima dela esateak, ez dio ekintzarako gaitasuna kentzen” (Caicedo *et al.*, 2009: 13).

Aurrekoarekin bat, gatazka armatu eta indarkeria politikoko egoeretan, gizonen zein emakumeen hainbat indarkeria mota pairatzen dute (hilketak, tortura, sarraskiak, desagertzeak, etab.), baina emakumeek, gainera, generoari lotutako indarkeria pairatzen dute. Zentzu horretan, Gaby Oré-ren esanetan (2005; 2), emakumeen eta nesken kontrako indarkeria gaur egungo gatazka armatuen inpaktu nabarmenena da: “Emakumeen kontrako genero-indarkeria sistematikoak argi uzten du hauek gerraren xede bilakatu direla”.

Gaur egun, sexu-indarkeria izan da gatazka armatuetan gehien dokumentatu den emakumeen giza eskubideen urraketa eta analisi feministak gehien erakarri dituena<sup>15</sup>. Historian gertaera iraunkorra izan den arren, sexu-indarkeria azterketa espezifikorik behar ez zuen ondorio sahiestezin edo naturalizat jo da eta, hortaz, ez ikusia egin zaio gerrako literaturan.

Gazta armatuetan sexu-indarkeriak izan duen eragina nekez kalkula daiteke zehatz. Hori dela eta, eskaintzen diren datuak balioespenak dira. Adibidez, Bosnia-Herzegovinan, gerran bortxatutako emakumeen kopurua 20.000 eta 50.000 artekoa da, horietako gehienak musulmanak. Hala, bada, zenbait balioespenen arabera, gutxienez 250.000 emakumek bortxaketa sexuala jasan zuten Ruandako genozidioan (Human Right Watch, 1996). Beste kasu ospetsuak dira, adibidez, Mozambikekoa, Guatemalako<sup>16</sup> eta, orain dela gutxiago, Kongoko Errepublika Demokratikokoa (RDC).

Antza denez, gatazka armatuetan gertatzen diren bortxaketa sexualak balioesteko zailtasunek eta erregistro egoki ezak arrazoi berberak dituzte herri guztietan. Alde batetik, emakumeen kontrako sexu-indarkeriaren normalizazioak, giza eskubideen urraketa honi buruzko informazioa biltzeko mekanismoak gartzea eragotzi du. Bestalde, kontuak hartu behar dira emakumeek testigantza emateko izan ohi dituzten oztopoak, euren segurtasunak eta ongizate sozialak izan ditzaketen ondorio negatiboak direla-eta, hala nola, errepresaliak eta bazterketa, ostrazismoa, etab. Honi gehitu behar zaio, emakumeek justizia mekanismoetan duten itxaropen urriak edota itxaropen eza.

Gatazka egoeran gertatutako emakumeen kontrako sexu-indarkeria aktore armatuen hainbat xede lortzea bilatzen duen gerrako arma edo estrategiatzat jo da: biktima kopuru handiena kaltetzea, biztanleen artean ikara sortzea, etsaiaren adoreari azpiak jatea “euren emakumeak defendatzeko” gai ere ez direla erakustea-

ren bidez, eta etsaiaren gizarte - eta erkidego-ehuna hondatzea (Mostov, 1995). Beraz, ikuspegi militarretik, estrategia bat da. Baina, horrez gain, nahitakotasun politikoa antzeman daiteke sexu-indarraren atzean, horren bidez sakontzen edo larriagotzen baitira “generoa, arraza, etnia edo gizarte-maila dela-eta historikoki baztertuak izan diren taldeen kontrako zuzengabetasun baldintzak” (CLADEM, 2007: 7). Honek azalduko luke, adibidez, sexu-indarkeria gatazka armatu ezberdinetan politika genoziden parte gisa erabili izana (Guatemalan, Jugoslavia ohian, Ruandan, etab.)<sup>17</sup>.

Bestalde, emakumeen militantzia politiko eta sozialak indarkeria bi zentzutan pairatzeko arriskua handitzen du: haien militantziagatik eta emakume izaeragatik. Hau da, erakunde armatu, politiko, sindikal, komunitario, erlijioso eta abarrean parte hartzeak, “indarkeria zuzena pairatzeko aukerak (gizonek dutenaren antzekoak) handitzen du, generoari lotutakoak mantentzen direlarik (bereziki, sexu-indarkeria emakumeen kontrako eraso espezifikoa gisa)” (Segura, 1998; 8-9). Askotan, gainera, indarkeria mota biak testuinguru beran ematen dira, hau da, sexu-bortxaketa tortura gisa erabiltzen da hilketaren aurretik. Latinoamerikan izandako azken hamarkadetakoa gatazka armatuek eta diktadura militarrek ondo irudikatzen dute esandakoa, “torturaren erabileran eta matxinatuekin usteko edo benetako harremana duten emakumeen erresistentzia hausteko beste moduetan, euren sexualitate da erasoen helburu nagusia” (*Ibid.*).

Argudiatu ohi da, biztanleria zibilak, eta kasu honetan emakumeek, gatazketan pairatzen duten indarkeriaren arrazoietakoa bat disziplina eza dela, baina sexu-indarkeria arma gisa erabiltzen duten aktore armatuen artean, askotan, estatuen menpekoak diren aktoreak aurkitzen ditugu (nagusiki, armada nazionalak eta euren egitura familiarrak). Beraz, argudio hori eztabaidagarria da. Egia esan, herri askotan (Guatemalan, Bosnia-Herzegovinan, El Salvadorren, etab.) indarke-

<sup>15</sup> Gatazka armatuetan gizonek ere bortxaketa sexuala pairatzen dute. Hala ere, emakumeak dira indarkeria mota honen helburu nagusia, eta horren arrazoi espezifikoak generoko bereizkeriarekin lotuta daude.

<sup>16</sup> Guatemalako gatazka armatuan gertatutako emakumeen kontrako sexu-indarkeriaren azterketa sakon baterako, ikus Montes (2006) eta ECAP eta UNAMG (2009).

<sup>17</sup> Hain zuzen ere, “bortxaketaren ekonomia politikoa” aztertzean, hau emakumeek duten “gizartearen ugaltze” rolari lotzen da. Hau da, emakumeak subjektu etnikoak eta nazionalak direlako, eta talde baten hurrengo belaunaldia sortzeko gaitasuna dutelako, indarkeriaren xede den talde bateko kideak izan daitezke, horrek dakarren arrisku espezifikoarekin.

ria mota honen eragile nagusiak estatuak dira, disziplina eta antolaketa zurrunda duten armaden bitartez. Horrez gain, zenbait kasutan, bake operazioetara bidalitako nazioarteko militarrek dira gauzatutako indarkeriaren atzean daudenak; hain zuzen, emakume erakunde ezberdinek, ikertzaileek eta Nazio Batuen Erakundeko zenbait langile zibilek ere gertaera hau salatu dute (Rees, 2002; Vandenberg, 2005)<sup>18</sup>.

Gatazka armatuetan emakumeen kontra erabilitako sexu-indarkeriaren efektuak anitzak dira eta, gehienak, iraunkorrak. Izan ere, heriotza ez dakarrenean, hain da sakona indarkeriaren eragina osasun fisiko eta psikikoan (haurdun geratzeko eta GIB-HIES bezalako sexu bidezko gaixotasunen bat kutsatzeko aukerak barne, eta beraz, hiltzeko aukerak barne) non kaltea nekez konponduko den<sup>19</sup>. Emakumeek berehala eta epe luzean pairatzen dituzten ondorio fisiko eta psikikoei ondorio sozial larriak gehitu behar zaizkie, sexu-indarkeriak ekarritako laidoaren eraginez batez ere. Askotan, laido horren ondorioz emakumei gertatutakoaren errua leporatzen zaie eta baztertu egiten dira. Gainera, familia eta gizarte-sareak kaltetzen dira, baita aukera ekonomiko-produktiboak eta gizarte-maila ere. Honen emaitza, txirotze ekonomiko eta soziala izan daiteke<sup>20</sup>.

Gatazka armatuen zenbait inpaktuekin gertatu bezala, sexu-indarkeriaz gain, lekualdaketa behartuak eta errefuxiatu izateak ere eragin ezberdina dute emakume eta gizonengan. Izan ere, munduan lekuz aldatutako eta errefuxiatutako pertsona gehienak emakumeak dira (Nazioarteko Amnistia, 2005: 48). Lekualdatu edo errefuxiatu izanez gero bizirik irauteko

aukera gehiago dauden arren, ihes egiteak sortzen dituen baldintza latzek -aktore armatuen jazarpena eta erasoak barne- heriotza dakarkiotte emakume askori<sup>21</sup>. Esan beharra dago, bizirik irauten dutenek hainbat problematikari egin behar diotela aurre. Esate baterako, ihes egitean, euren etxe eta bizibideak galtzarekin batera ahultasun ekonomiko egoera batean geratzen dira. Honi gehitu behar zaio eurek direla adingabeen, adinduen, elbarrien eta zaurituen zaintza lanak beren gain hartzen dituztenak (*Ibid.*). Era berean, migrazio behartuaren inpaktuen artean, azpimarratu behar da, indarkeria sexuala eta fisikoa pairatzeko arrisku handiagoa dutela eta familia - eta gizarte-egonkortasuna galtzen dutela (El Jack, 2003).

### 3.2. Generoko joera partzialak trantsiziozko justizian

1990ko hamarkadaren hasieran, emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan zegoen ezagutza eta kontzientziazio maila izugarri hobetu zen, bereziki, Jugoslavia ohian emakumeen kontrako sexu-bortxaketak hedabideetan izan zuten ohiartzunaren ondorioz<sup>22</sup>. Garai horretan, emakumeen kontrako sexu-indarkeriak gerrako krimenen eta gizadiaren kontrako krimenen definizioetatik kanpo jarraitzen zuen. Honek erreakzio mugimendu indartsua sorrarazi zuen mundu osoko ekintzaile eta ikertzaile feministen artean. Presioaren eraginez gehienbat, azkenean, Jugoslavia ohian eta Ruandan egindako delituak epaitzeko helburuarekin Nazio Batuek ezarritako *ad hoc* auzitegien estatutuetan, bortxaketa gizadiaren kontrako krimen gisa sartu zen. Era berean, Nazioarteko Zigor Auzitegia sortu zuen estatutu internazionalen sexu - eta genero-indarkeria

<sup>18</sup> Martina Vandenberg-ek (2005) Balkanetan egon ziren nazioarteko erakundeetako langile militar eta zibilen parte-hartzeari buruzko ikerketa zehatza egiten du. Parte-hartze hori jazarpen eta eraso sexualetik, emakume-trafiko eta prostituzio behartua doa.

<sup>19</sup> Sexu-indarkeriaren inpaktu fisiko eta psikikoen aztertzea zehatza egiteko, ikus *medica mondiale* erakundeko Karin Gries-ek egindako mediku-txostena, Mendia eta Guzman-en (2012).

<sup>20</sup> Sexu-indarkeriaren inpaktu psikosozialak eta kulturalen azterketa zehatza egiteko, ikus Olga Alicia Paz Bailey-k eta Irma Alicia Velasquez Nimatuj-ek, hurrenez hurren, egindako txostenak, Mendia eta Guzman-en (2012).

<sup>21</sup> Guatemalaren kasuan, Argitze Historikorako Batzordearen *Isiltasunaren oroimena* txostenak (CEH, 1999: II. Kapituluak, 3. liburukia), "behartutako lekualdatzeak eragindako heriotza", bere garrantzia dela eta, giza eskubideen urraketa larrizat jotzen du. Datuak sexu arabera bereizten ez baditu ere, CEHk 1.933 hildako zenbatzen ditu lekualdatzen ondorioz, horietako 451 ume eta adinduek.

<sup>22</sup> Indarkeria hori noiznahi eta nonahi gertatzen den fenomenoaren adierazpena zen, baina Dubravka Zarkov-en iritziz, eskualdeko eta Mendebaldeko ikerketa feminista askok Bosnia-Herzegovinan gertatutako sexu-bortxaketak ohiz kanpokoak eta bakarrak zirela. Haatik, aurreko eta momentuko gatazkak aztertzen zituzten ikerketek ideia hori ezeztatzen zuten. Zarkov-en arabera, Mendebaldeko teorizazioari dagokionez, Bosnia-Herzegovina European simbolikoki sartzeak argiago eta garrantzitsuago bihurtu zituen bortxaketa horiek, adibidez, Ruandan gertatutakoekin erkatuta.

gerrako krimen, genozidio eta gizadiaren kontrako krimentzat jo ziren.

Aurrerapen honen ondorioz, Jugoslaviarako eta Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegiek historikoak diren lehen zigor-epaiak eman zituzten sexu-krimenengatik. *Akayesu* kasuan, adibidez, Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegiak bortxaketa eta beste sexu-indarkeria motak genozidio ekintzat hartu zituen, tutsi etniako emakumeen kontra egiten baitziren haien etnia eta generoagatik. Jugoslaviarako Nazioarteko Zigor Auzitegiak, bestalde, *Furundzija* bezalako kasuetan, gerrako krimentzat, hain zuzen, torturatzat jo zuen bortxaketa<sup>23</sup>. Zalantzarik gabe, epai hauek oso garrantzitsuak dira, eta azken bi hamarkadotan barne edo nazioarteko gatazketan egindako generoko krimenengatik justizia lortzeko aukerak handitu direla adierazten dute (Oré, 2005: 3).

Hala ere, emakumeen giza eskubideen urraketek duten garrantzia eta ordurarte izandako nazioarteko erantzuna ez zetozen bat. Trantsiziozko justizia prozesu ezberdinen ikerketa konparatzaileak agerian uzten du generoko joera partzialak daudela ezarritako neurri judizial eta politikoetan. Ikuspegi feminista batetik, Ana Jimena Bautista eta Mariela Infanteren arabera (2009: 1) azalpen nagusia hau da: trantsiziozko prozesu hauek “sistema patriarkal baten baitan ezarritako jarraibideekin bat datoz, eta sistema honek emakumeak gizonen menpe egotea instituzionalizatzen du; biztanleriaren erdiaren aurkako bazterkeria praktikak instituzionalizatzen ditu, pertsona guztien giza eskubideen errespetua lortzeko helburua baztertuz”.

Izan ere, trantsiziozko justiziaren generoko joera partzialak emakumeen bereizkerian oinarritutako jarraibide historikoen ondorio dira, eta adierazpen anitz dute. Ondorioz, feminismoarentzat, gakoa generoko joera partzial horietan sakontzea da. Hausnarketa hau biktimen justizia eskubidearen funtsezko hiru osagarrietan oinarrituz egin daiteke, hau da, lehen aipatutako egia, justizia eta kalteen konpontzea.

### 3.2.1. Emakumeak egia bilatzeko prozesuetan

Emakumeek egia bilatzeko prozesuetan duten esperientzia ohikoenak aztertzeko bi alderdiri errepara-

tuko diogu: a) zein neurritan agertzen diren emakumeak giza eskubideen urraketen biktima gisa; eta b) noraino hartzen duten parte gatazka edo larderiako erregimenetan izandako indarkeriazko ekintzak ikeritzeko ardura duten instantzietan.

Lehenik, egia bilatzeko prozesuetan emakumeak giza eskubideen urraketen biktima gisa agertzeari dagokionez, kritika feministak seinalatzen du ez ikusia egiten zaiela emakumeen eskarmentuei mundu osoan. Lehen aipatu dugun Hayneren (1994) ikerketa konparatzailean, 1974-1994 epean ezarritako hamabost egiaen batzordeetatik ez dugu ikusten emakumeak edo generoa aipatzen duen erreferentzia bat ere. Honek agerian uzten du emakumeen kontrako indarkeria ekintzak ez zirela aintzat hartu batzorde hauen ikerketen parametroak zehazterakoan. Latinoamerikako Egiaen Batzordeen kasu konkreturako, Bautistak eta Infantekek (2009) adierazten dute batzorde gehienek ez zituztela inola ere edo behar bezala aipatu emakumeen kontra erabilitako indarkeriaren benetako garrantzia eta indarkeria horren formak.

Emakumeen giza eskubideen urraketen erregistro falta honek Guatemalako Argitze Historikorako Batzordearen txostena du lehenengo salbuespenetariko bat (CEH, 1999). Erakunde feministen presioari esker, gatazka armatuan emakumeen kontrako sexu-indarkeria praktika orokortu eta sistematikoa zela jakin zen, gehien bat emakume indigena maien kontra erabiltzen zena. Dena dela, CEHk berak aitortu bezala, indarkeria hau azpierregratuta zegoen eta erregratutako kasuetatik gutxitan bildu zen informazioa. Hain justu ere, txostenak 1.465 sexu-indarkeria kasu baino ez zituen bildu (erregratutako giza eskubideen urraketek %3 baino gutxiago), eta horietatik 285 kasutan bakarrik bildu zen informazioa (UNAMG, ECAP eta MTM, 2012).

Kasuen azpierregrato eta dokumentazio urriarekin batera, batzordeek gizonak pairatzen dituzten giza eskubideen urraketetan arreta jartzeko joera dute, hala nola, judizioz kanpoko exekuzioak, atxiloketa bidegabeak eta desagertze behartuak. Horrek, emakumeen aurkako sexu-indarkeriaren inguruko egia ezagutza mugatzen du. Gatazka belikoetan eta errepresio tes-

<sup>23</sup> Gai honen gaineko azterketa legal sakona egiteko, ikus Caicedo *et al.* (2009).

tinguruetan gertatutako indarkeria ekintzen gainean egin diren ikerketek ez dute arreta nahikoa edo inolako arreta jartzen, ordea, emakumeek pairatzen dituzten indarkeria mota espezifikoetan, hala nola, sexu-indarkerian eta migrazio behartuan.

Maiz, emakumeek berek euren eskubideen urraketak baino, beste inoren (senarraren, neben, seme-alaben, iloben, eta abarren) eskubideen urraketak lehenesten dituzte, eta hori emakumeen kontrako krimenen azpierreregistroaren eta ikusezintasunaren beste arrazoi bat. Alde batetik, kontuan hartu behar da emakumeek euren bizipenen gutxiespen historikoa oso barneratuta dutela eta, hortaz, haien ustez, “eurena ez dela horren garrantzitsua” edo euren kontrako zenbait indarkeria mota ez dela giza eskubideen urraketa. Bestetik, eta gehienbat sexu-indarkeria kasuetan, beldurra eta estigma sozial gogorra izan daitezke krimenen ikusezintasunaren arrazoiak.

Azkenik, ikusi bezala, kontuan hartu behar da ahaztea hori bizirik irauteko modu bat ere badela eta, hortaz, zenbait kasutan, indarkeriak sortutako traumaren eraginez zenbait emakumek ezin izango dute gertatutakoa gogoratu. Graciela Sapriza, “sufrimendua-oren oroimena” sahiesteko estrategia inkontziente hau argitze aldera, Urugaiko diktaduraren biktima den emakume baten kontaketaz baliatzen da: “Erbesteratutako emakume batek Urugaiko presoekiko elkartasun eta salaketa kanpainetan izan zuen parte-hartzea kontatzen du. Difusio ibilaldi horietan, hark, preso politiko ohia zenez, bere testigantza ematen zuen. Baina beti hirugarren pertsona egiten zuen eta ez zuen berak sufritutako tortura eta bortxaketa aipatzen. Ezin izan zuen gogoratu -‘hutsunea geratu zitzaidan’- pairatutako bortxaketa. Urte batzuk geroago, harritu zuen gartzelako bere kideek bizipen hori ezagutzeak. Berak kontatu eta berehala ‘ezabatu’ omen zuen” (Sapriza, 2009: 76).

Bigarrenik, emakumeek egia ikertzeko egitura edo mekanismoetan, bereziki, Egiaren Batzordeetan duten parte-hartzeari dagokionez, argia da emakumeak azpiordezkatuta daudela. Bautista eta Infanteren arabera (2009: 3), 1985 eta 2003 artean Latinoamerikan ezarritako sei Egiaren Batzordeetan emakumeak, batesbestez, parte-hartzaileen %15 baino ez ziren; alegia, El Salvadorko kasuan ez zen inolako parte-hartzerik egon eta Guatemalan %33koa, azken hau emakumeen

parte-hartze altuena izan zelarik. Autore hauentzat, zenbateko hauek, aktore politiko izateari dagokionez emakumeek pairatzen duten bazterketaren adierazgarri dira eta trantsizio prozesuen oinarriak kolokan jartzen dituzte.

Emakumeak ia ez daude egia ikertzeko organismoetan baina gehiengoa dira Latinoamerikako eta beste eskualdeetako gatazka politiko-armatuetan giza eskubideen defentsan aritu diren erakundeetan. Hala, bada, erakunde hauek egindako informazio bilketa eta ikerketa lana oso baliogarria izan da, herrialde askotan Egiaren Batzordeen lanaren oinarri izan baitira. Hau da, besteak beste, El Salvadorreko Egiaren Batzordearen kasua.

### 3.2.2. Emakumeek justizia lortzea mugatzen duten faktoreak

Aipatu bezala, funtsezko aurrerapausoak eman dira nazioarteko zuzenbidean eta horiei esker, gaur egun, sexu-indarkeria gerrako krimen, gizadiaren kontrako krimen eta genozidiotzat edukitzen dira.

Aurrekoa azpimarratuz, ikuspegi feministatik, trantsiziozko justiziaren azterketa osatugabea da ez bada kontuan hartzen zigorgabetasunari mesede egiten dion beste zenbait alderdi. Hala, emakumeen esperientziatik -askotan gaindiezinak diren- traba ekonomikoak, kulturalak, sozialak, familiarak, eta abarrek zigorgabetasun faktoreak osatzen dituzte. Emakumeek traba horiekin egiten dute topo epai-prozesu osoan zehar, salaketa aurretik epaia ematen den arte -ematen bada-, baita tartean dauden justizia-administrazioko agenteen jardueran ere.

Lehenengo hurratsari, alegia, salaketa jartzeko edo ez jartzeko erabakiari dagokionez, ugari dira eragozpenak sortzen dituzten faktoreak eta hauek, orokorrean, testuinguru sozio-kultural ezberdinetan ere antzekoak dira. Adibidez, Darfuren (Sudan), emakumeen kontrako sexu-krimenen kasurako, Ruth Abril Stoffels-ek (2008: 2-4) hauek identifikatzen ditu: sexu-indarkeriaren, bereziki, bortxaketaren, eta horrek familia eta gizarte-taldearentzat dakarren laidoaren eta horren ondorioz sortzen den isolamendu eta bazterketa sozialaren arteko lotura; salatutako delitua zigortzen ez bada, salaketa-egileak adulterioagatik izan dezakeen zigorra; nazio-mailako legerian sexu-eraso

eta bortxaketaren definizio zorrotzak, askotan ez baitute barne hartzen nazioarteko legeriaren arabera zigorgarriak diren jokabide asko; zigor-epai ezak sortzen duen etsipena; epai-prozesua hasi eta mantentzeak ekar ditzakeen kostu ekonomikoak; eta oztopo burokratikoak, askotan emakumeek bete ezin dituzten baldintzak eskatzen baitira<sup>24</sup>.

Faktore hauez gain, zenbait kasutan, beldurrak sortutako traba psikologikoa azpimarratzen da. Esaterako, Guatemalan, erasotzaileak biktimen erkidego beran edo oso hurbil bizitzen direnez salaketa egiteko erabakia hartzea asko kostatzen da (ECAP eta UNAMG, 2009). Jakina, gatazka belikoak dirauen leku horietan, Kolonbian kasu, emakumeek dituzten zailtasunak gehiago dira: “herrialdeko barne gatazka armatuan, lurraldeko kontrol politiko, ekonomiko eta militarra duten aktore armatuen aurrean biktimek daukaten babes ezak sexu-indarkeria salatzeo aukerak baldintzatzen ditu” (Sisma Mujer, d.g.: 8).

Salaketa egiten den kasu horietan, biktima baino, justiziako agenteak eta hauen jarduera nabarmentzen dira prozesuan. Etapa horretan, emakumeek topatzen dituzten oztopoak salaketa egiteko momentuan izaten dituztenak bezainbeste dira. Gerta daiteke emakumeen kontrako krimenen aurrean poliziak bere lana ez egitea; kasu horiek ikertzeko tresna edo ezagutza egokirik ez egotea; generoko kontuen inguruan interesik ez egotea; emakumeak birbiktimizatzen dituzten epai-protokoloak egotea; etab. Are gehiago, zenbait testuingurutan emakumeen kontrako indarkeria sozialki onartua dago eta naturalizat hartzen da. Gainera, aniztasun etnikoa duten testuinguruetan, Guatemalan kasu, ikertzaile eta ekintzaile feministek etnia eta arraza aldagaia kontuan hartzearen garrantzia azpimarratu dute; izan ere, bazterkeria etnikoa eta arrazakeriaren instituzionalizazioak emakume maiek justizia lortzeko topatzen duten funtsezko oztopoetarikoa bat da<sup>25</sup>.

Azkenik, Abril Stoffels-en esanetan (2008: 5), epai-prozesuak irekitzea lortuta ere, zigor-epaiak oso urriak dira eta beti ez dira betearazten. Honi lotu behar zaio, aurrerago ikusiko dugun bezala, ez dela neurri mediko, psikologiko eta sozialik hartzen biktimak diren emakumeek pairatutako kalteak konpontzeko. Emakumeen babes ezaren aurrean, Sudanen bai eta beste zenbait herrialdetan ere justizia eskubidearen dimentsio hori bermatzeko gobernuak duen erantzunkizuna gobernuz kanpoko erakundeek hartzen dute (*ibid.*).

### 3.2.3. Kalteak konpontzea genero-ikuspegitik

Biktimek pairatutako kaltearen konpontzerako eskubidearen inguruan, ikerketa feministek ikusi dutenez, herrialde ezberdinetan martxan jarritako konpontze neurriek ez dute elementu hauek kontuan hartzen: indarkeriaren jatorriak eta inpaktuak ezberdinak dira generoaren arabera; eta emakumeak bereizi kaltetzen dituzten giza eskubideen urraketan kasuetarako ez dira konpontze mekanismo espezifikoak ezarri. Gaby Oréren hitzetan (2005: 3), “Giza eskubideen urraketak sortutako kalteak konpontzeko formei, irizpideei eta kalte-ordainak neurtzeko moduei dagokienez, gatazka ostean ezarritako konpontze mekanismo nazionalak aukera ezberdinak bildu dituzte. Aukera guztiak saiatu dira egindako kaltea leheneratzen, baina konpontze forma hauek erregulatzen dituen arauen artean ez dago bat ere sexu - edo genero-krimenen kasuetako konpontzei espezifiko aurre egiten diena”.

Konpontze programak diseinatzerakoan, ideia da programa hauek indarkeriaren biktima diren emakume eta gizonei mesede bera egitea. Haatik, programa horiek ez dira egokiak izango ez badute kontuan hartzen nola baldintzatzen duten emakumeen bizitza ezberdintasun sozial, politiko eta ekonomikoek. Adibidez, konpontze politikek bitimen hezkuntza - eta lan-aukeretan arreta jartzen dutenean, ez dute kontuan hartzen emakumeek laneratze-tasa baxuagoa dutela, edo euren

<sup>24</sup> Adibidez, erasotzailea zalantzarik gabe nor den jakitea, erasoaren froga fisikoak egotea edo salaketa eraso gertatu eta hurrengo 24 orduetan egitea (Abril Stoffels, 2008: 3). Argi dago gatazka armatuetan edota errepresio egoeretan horrelako baldintzak ezin direla erraz bete.

<sup>25</sup> Julie Guillerotek (2009: 108) genero-ikupegitik konpontzei buruz egiten duen azterketan honakoa baieztatzen du: “Emakumeek, eta are gehiago emakume indigenek, orokorrean jasaten duten diskriminazioa alde batera utzita, magistratuek sexu-indarkeriak arinki hartzeko, emakumeak haien sufrimenduen erantzule egiteko edota erresistentzia fisikoa egon denaren frogak exigitzeko joera dute. Kasu horietan, konpontzeari begira eronkarik handiena zera izango da, funtzionario publikoek eta orokorrean gizarteak indarkeria mota hau ulertzeko era tradizionalak gainditzea”.



lanak ezegonkorragoak izan ohi direla, edota familiako eta etxeko ardurak era bidegabean banatuta egoteak emakumeen aukerak mugatzen dituela, ikasteari edo lan ordaindua izateari dagokionez (Bautista eta Infante, 2009: 4).

Amanda Lyons-ek beste elementu garrantzitsu bat azaltze du Kolonbiaren kasurako. Autoreak arreta jartzen du emakumeek indarkeriaren zeharkako biktima gisa duten egoeran, eta honek euren bizitzan duen eraginean. Kolonbian, beste hainbat herritan bezala, argia da emakumeak, oro har, biktima zuzenen senide bezala agertzen direla. Beraz, generoko azterketa kritikoa sartu behar da konpontze egokia bermatzeko: “Agian, emakumeak euren burua eta bizi-proiektuak familia-harremanen arabera -bikotekidearekin, gurasoekin, neba-arrebekin, seme-alabekin, ilobekin, bilobekin- definitzeko heziak izan dira. Hala, bada, harreman espezifiko baten galerak edo kaltetzeak edota familiak, orokorrean, izan dezaken kalteak era bereizgarri eta gogorrean eragiten diote haien ongizateri” (Lyons, 2011: 165). Hain zuzen ere, biktimen senide gisa pairatutako kalte anitzen artean autoreak hauek zenbatzen ditu (*Ibid.*: 163-164):

- Oinaze emozionala, askotan, fisikoki ere somatizatzen dena.
- Arazo ekonomikoak, biktimarekiko menpekotasun ekonomikoa egon den kasuetan.
- Familia-arduren aldaketa gogor eta zorrotzak, hezkuntza eta lan asmoak oztopatu ditzaketanak.
- Hildako, desagertutako edo elbarrituaren izenean, egia, justizia eta konpontzea bilatzeak dakartzan arrisku eta kostu ekonomiko eta emozionalak.
- Biktima zuzenarekin izandako harremanaren ondorioz estigmatizazioa pairatzea.
- Aurreko guztiaren eraginez, indarkeria zuzenaren aurrean kalteberatasun handiagoa.

Esparru honetan egiten den azterketa feministak lantzen duen beste alderdi bat hau da: generoaren arabera sortzen diren konpontzearen ikusmolde ezberdinak. Generoaz aparte, gizarte-maila, arraza edo adina bezalako beste aldagaiek ere eragin handia dute konpontzearen ikusmolde horietan. Izan daitezkeen konpontze moduen inguruan, Ruth Rubio-Marínek azaltzen du giza eskubideen biktima diren emakumeek, maiz, haien oinarrizko beharrak betetzen duten zerbitzuak eskatzen dituztela, hala nola, birgaitze mediko eta psikologikorako zerbitzuak, seme-alabentzako hezkuntza eta etxebizitzaren hobekuntzarako laguntza (2006: 29-30). Eskaera mota hauek beste motako eskaerak -galdutako ondasunak itzultzea edo kalte-ordain ekonomikoak jasotzea- baino ugariagoak dira. Rubio-Marínen esanetan, konpontze gisa oinarrizko zerbitzuak eskatzea emakumeak pairatzen dituzten pobrezia eta miseriaren adierazgarri izan daiteke. Halaber, euren eskubideen inguruan informazio edo kontzientzia falta dutelaren seinale izan daiteke. Hau da, emakume hauek jakingo balute, hiritarrak diren heinean, oinarrizko ondasun eta zerbitzuetarako eskubidea dutela eta, aldi berean, giza eskubideen biktima diren heinean, beste onurak -adibidez, kalte-ordainak- lortzeko eskubidea dutela, seguru asko, onura horiek ere eskatuko lituzkete.



## 4. Erresistentzia feministak trantsiziozko justiziaren esparruan

Gizarte errealitatearen azterketa kritikoarekin batera, feminismoak gizarte eraldaketaren aldeko izaera proposatzailea du ezaugarri. Hori dela eta, jorratzen ari garen esparruan, trantsiziozko justizia prozesuek ditzuten generoko hutsuneak seinalatzeaz aparte, beharrezkoa da zigorgabetasun patriarkalaren aurrean emakumeek garatutako erresistentzia esperientziak eta justizia proposamen alternatiboak azpimarratzea. Ugari eta askotarikoak badira ere, hemen hauek landuko ditugu: a) gatazka politiko-armatuetan gertatutako emakumeen giza eskubideen urraketen ikerketa; b) bizirik iraun duten biktimen laguntza psikosoziala; c) auzitegi simbolikoak; d) emakumeen eskutik oroi-mena berreskuratzea; eta e) konpontze integrala.

### 4.1. Gatazka armatuetan gertatutako emakumeen giza eskubideen urraketen inguruko ikerketa

3.1. epigrafean ikusi bezala, gatazketan indarkeriak generoaren arabera zer jatorri eta eragin espezifikoak dituen agerian uzteko, ikerketa feministak funtsezkoak izan dira. Ikerketa horietako askok emakumeen kontrako sexu-indarkerian jarri dute arreta, disziplina ikuspegi ezberdinetatik abiatuta (psikologia, medikuntza, antropologia, soziologia, zuzenbidea, eta abar).

Emakumeen justiziarako eskubideari dagokionez, ikerketen zenbait ondorio garrantzitsu aipa ditzakegu. Hauek

zigorgabetasunaren aurrean emakumeen erresistentzien sostengu bihurtzen dira. Lehenik eta behin, feminismoak egiaztatu ahal izan du gatazka armatuetan gertatutako emakumeen giza eskubideen urraketak ez direla gertaera bakanak edo noizbehinkakoak. Aitzitik, aurretik zehaztutako errepresio politika eta gerrako estrategiei dagozkie. Kasu askotan, estatuek matxinatuen kontra dituzten politiken osagarrietako bat da sexu-indarkeria. Hala, bada, indarkeria hori ezin da bakarrik sexu-krimenez hartu, emakumeen kontrako estatu-krimen politikoa ere baita.

Bigarrenik, feminismoak funtsezko ekarpena egin du honakoa identifikatuz: gatazketan dauden emakumeen kontrako indarkeria-ereduak gatazka aurreko ereduak larriagotze eta gaiztotzearen emaitza dira. Ondorioz, gerra garaian dagoen emakumeen kontrako indarkeria ezin da “bake” garaiko indarkeriatik deslotu. Emakumeen eskarmentuaren arabera, ezin da, gatazken azterketan ohi den bezala, gerra eta bakeartean arteko dikotomia zurrunik ezarri. Horri lotuta, Liz Kelly autorearen esanetan (2000: 46), gatazka egoerako sexu-indarkeria beste edozein testuinguruko sexu-indarkeriaren zabaltzea da, kokapenari, formei eta intentsitateari dagokienez. Gerra ez dagoenean ere, generoko ikuspegitik badago “gerra ikusezina” edo “itzalpekoa”. Hala, bada, gatazka aurretik, gatazkan zehar eta gatazka ostean emakumeen kontra erabilitako indarkeria ezberdinen arteko muga lausoa da. Ideia horrekin bat, Bogotan, 2004an ospatutako Gerraren kontrako Emakumeen Nazioarteko Topaketaren

antolatzaileek lelo hau aukeratu zuten: “Ez hiltzen gaituen gerrarik, ez zapaltzen gaituen bakerik”.

Aurrekoa emakumeen kontrako indarkeriaren mui-nera doa. Izaera estrukturala duen indarkeria honek emakumeen bazterketa eta menpekotasun prozesuak sortzen ditu gizarte antolaketaren eremu guztietan eta, nola gerran hala bakean, emakumeen giza eskubideen urraketa da. Aldi berean, indarkeria honen legitimazio faktoreak diren heinean, “kultura eta erlijioaren interpretazio diskriminatzaileek emakume eta nesken estatus ekonomiko eta politikoa eragin negatiboa dute” (Zenbaiten Artean, 2007). Emakumeen kontrako indarkeria gatazka aurrekoa izanik eta generoko desberdintasun historikoen ondorioa izanik, gatazka ondoko egoeretan, indarkeria hura emakumeen kontrako bereizkeria larriagotzen du. Hau, batik bat, emakumeen hilketa tasaren handitzean ikusten da.

#### 4.2. Bizirik dirauten biktimei zuzendutako laguntza psikosoziala

Gatazkan zeharreko giza eskubideen urraketen biktimea diren emakumeak laguntzea justizia eta bake erakuntzaren eremuko ekintza feminista nagusietariko bat da, eta emakumeen arteko elkartasun adierazpen handienetariko bat ere bai. Biktimei laguntza psikosoziala emateko lana, gizarte ehuna berreskuratzea zuzentzen diren esfortzu handien parte da, eta emakumeen erakundeek egiten dute mundu osoan.

Latinoamerikari dagokionez, Kolonbian, Guatemalan eta Perun zenbait esperientzia nabarmen dago gatazka egoeran sexu-indarkeria pairatu eta bizirik iraun duten emakume biktimek laguntzearen inguruan (PCS, 2007). Orokorrean, emakumeek gatazkan pairatutako traumak landu ahal izateko eta banakako eta taldekako sendakuntza prozesua haste aldera, feminismoaren proposamena konfiantza eremuak sortzean datza. Gatazka armatuaren inpaktu psikosoziala autolaguntza taldeen bidez jorratzen da. Talde hauen ardatz nagusia emakumeak maila pertsonala, soziala eta politikoa ahalduntzea da.

Prozesu hauek ideia honetan oinarritzen dira: errepre-sioak eta gerrak pertsonaren dimentsio guztietan dute eragina, erkidego - eta gizarte-bizitza barne. Beraz, sendakuntzari dagokionez, talde-dimentsioak garrantzia handia du. Aipaturiko talde-terapia prozesuek gai ezberdin askori emakumeen ikuspuntutik aurre egiteko aukera ematen dute, hala nola, gerrak haien bizitzan dituen inpaktu emozional, sozial eta ekonomiko; haien bizipenaren ondorio pertsonal, familiar eta sozialei, eta abarri.

Azkenik, prozesu hauen gakoetako bat kultura-dimentsioa da, gehienbat, Guatemala bezalako aniztasun etniko handiko herrietan, non gatazkan zeharreko indarkeriak motibazio arrazista nabarmena izan zuen. Bertan, sexu-indarkeria jasan eta bizirik iraun zuten emakume maiek osatutako taldeentzako laguntzak urte asko behar izan du konfiantza eraikitzeke eta talde horien eta gehien bat emakume mestizoek osoten dituzten erakunde feministen arteko elkarrizketa-eremuak sortzeko.

#### 4.3. Auzitegi sinbolikoak

Ikusi bezala, gatazka armatua dagoen egoeretan, emakumeen kontrako krimenen ikusezintasuna eta zigorgabetasun juridikoa bereziki nabariak dira. Horren aurrean, mugimendu feministak “auzitegi sinboliko” delakoak hartu ditu salaketa eta konpontze sinbolikoa burutzeko baliabide alternatibo gisa. Iniziatiba horietako lehenengoak Asian eta Ozeano Barean izan ziren, eta esperientzia hori munduko beste eskualdeetara hedatu zen gero, hala nola Afrikara, Ekialde Ertainera eta Latinoamerikara (Kumar, 2011).

Asian, 2000n izandako *Tokioko Auzitegia* adibide aipagarria da. Japoniako armadak, Bigarren Mundu Gerran zehar, herrialde ezberdinetako<sup>26</sup> milaka emakume sexu-esklabu izatera behartu zituen eta auzitegi honen xedea, hori epaitzea zen. Latinoamerikan, bestalde, Kolonbia izan da erakunde feministek ezarritako auzitegi sinboliko gehien izan dituen herrietariko bat. 90ko hamarkadatik, lau izan dira bertan: 1) *Emakumeen aurka egindako gizadiaren kontrako delituen aurkako egiaren auzitegia* (Cartagena, 1998); 2) *“Ahaztearen kontrako*

<sup>26</sup> Filipinak, Ipar eta Hego Korea, Txina, Taiwan, Holanda, Indonesia, Malasia eta Japoniako emakumeak.

eta *Erre-existentziarako*” emakume kolonbiarren *Gorteak* (Cali, 2005 eta 2006); 3) *Egiaren auzitegi simbolikoa* “*Azala letreiatu kanpaina*” (Medellin, 2007); eta d) *Emakumeen giza eskubideen urraketan gaineko auzitegia* “*Emakumeen ahotsa gabe egia ez da osoa*” (Medellin, 2010). Guatemalaren kasuan, garrantzitsua da 1998ko *Emakumeen Lehenengo Kontzientzia Auzitegia*, baita 2010ean ospatutako *Barne gatazka armatuan zeharreko emakumeen kontrako sexu-indarkeriaren aurkako Kontzientzia Auzitegia* ere. Latinoamerikako beste adibide aipagarri batzuen artean, 1995ko *Emakumeen giza eskubideen urraketan kontrako auzitegia*, Costa Rican; edo 2004ko *Emakumeen kontrako indarkeria eta bereizkeriaren gaineko Kontzientzia Auzitegia: Ciudad Juarez eta Chihuahua*ko kasuak<sup>27</sup>.

Oro har, auzitegi simbolikoez egiten dituzten balorazioek haien izaera estrategikoa azpimarratzen dute zenbait zentzutan, hots, hauek:

a) *Oroimenerako eta aitorten historikorako espazioak zabaltzen dituzte*. Elisabeth Lira-k talde-oroimenaren inguruan egiten duen azterketaren arabera, gizarteek ez dute beti behar den arreta jartzen gertaera traumatikoez biktimgan duten efektuetan, baina “laguntza zuzenarekin gertatzen den bezala, gertatutakoaren aitorten publikoak eta jasotako elkartasun adierazpenek ere rol garrantzitsua dute norbanako eta talde-esparruan” (Lira, 2010: 8). Zentzu horretan, gertatutakoaren inguruan talde-oroimena sortzeko aurreko urrats gisa, aitortpena bilatzen da eta emakumeen auzitegiak horretarako bitartekoak dira. Indarkeria pairatu eta bizirik iraun duten emakume adinduen kasuan, aitorten historikoa eta talde-memoriaren eraikuntza premia etiko eta politikoa da. Biktimen ikuspegitik, auzitegiek oroimen lana sendotzeko balio dute; oroimen lan hori, emakumeen kontrako krimenak ez ahazteko eta haien inguruko isiltasuna hausteko agindu bilakatzen da eta. Horren ildotik, oso egokia zen 2010an Guatemalako Kontzientzia Auzitegia sortu zuen kanpainaren leloa: “Ez ahanztura ez isiltasuna”.

b) *Eztabaida soziala sortzen dute emakumeen kontrako krimenen inguruan, bereziki, sexu-krimenen inguruan*. Lehenik, auzitegien izaera publikoari esker, ahanztura eta isiltasuna sustatzen duten politiken aurrean, emakumeen giza eskubideen urraketan larritasuna eta garrantzia ezagutzera ematen da. Bigarrenik, izaera publiko horrek ideia hau indartzen du: biktimgak ez ezik, gizarte osoak ere egia ezagutzeko eskubidea du. Hirugarrenik, ikusi bezala, emakumeen kontra bai gatazka armatuan bai beste edozein testuinguruan erabilitako indarkerian jarraitutasuna dago. Gizarteak jarraitutasun horren kontzientzia izan dezan laguntzen dute auzitegiek. Hori dela eta, Guatemalako Kontzientzia Auzitegiak zenbait emakume maiaren lekukotasuna bildu zuen, 80ko hamarkadan eta gaur egun haien lurraz uztera behartuak izan direnean, indarkeria pairatu eta bizirik iraun dutenak<sup>28</sup>. Lekukotasun hauei esker ikusi ahal izan zen nola emakumeen kontrako indarkeriak, “bake” garaian ere, tokiko eta nazioarteko bostere ekonomiko eta politikoen zerbitzura dagoen tresna politiko-militarra izaten jarraitzen duen.

c) *Aurkeztutako kasuak justizia-sistemara heltzeko baldintzak sortzen laguntzen dute*. Erakunde feministen iritziz, auzitegi simbolikoak ez dira biktimen justizia-eskubidearen ordezkioak, eta ez dituzte justizia-agentek eskubide hori bermatzeko erantzunkizunez libre uzten. Aitzitik, auzitegi simbolikoez estatuak egin behar duen bidea gogorarazten dute. Hau da, justizia administratze-ko arduradunei emakumeen kontrako krimenen aurrean justizia ezartzeko mezua igortzen die. Helburu honi lotuta, erakunde feministek zentzu pedagogikoa ematen diete auzitegi simbolikoei. Gainera, ideia hau sendotzeko esan beharra dago, indarkeria pairatu eta epai-prozesua hasi nahi duten emakumeentzat, hau “entsegua” izan daitekeela askotan. Bestalde, prozesu legalak eskatzen duen baldintzak bete ezin dituzten emakumeen kasuan, auzitegi hauek lortuko duten justizia bakarra izan daitezke.

<sup>27</sup> Lan hau egiteko momentuan, Mugarik Gabek eta beste zenbait euskal gizarte-erakundeek *Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Auzitegia* antolatzen ari da, 2013ko ekainean ospatuko dena.

<sup>28</sup> Estatuak nekazaritza erkidegoei lurraz utzarazten die baliabide ezberdinak ustiatzeko baimena tokiko eta nazioarteko enpresei emateko, bereziki, mehatzaritza-koei eta hidroeletrikoei.

#### 4.4. Emakumeen oroimena berreskuratzea

Errepresio eta gatazken oroimena berreskuratzeko egiten den lana funtsezkoa da giza eskubideen aldeko erakunde eta instituzio akademiko askoren jardueran. Gehienbat azken urteotan, antza denez, zenbait herritan, “oroimenaren eklosioa” gertatzen ari da eta “berriro hutsetik hastea” aldarrikatzen duten diskurtso ofizialei aurre egiten ari zaie.

Ikuspegi feministatik oroimena berreskuratzeko esfortzuak ez dira nahikoak ez badituzte kontuan hartzen emakumeek parte hartzeko dituzten moduak eta gatazka politiko-armatuetan izan dituzten bizipenak. Latinoamerikan adibidez, hainbat emakumek, kontinentean hedatu ziren diktadura militar eta errepresio politikoaren aurkako antolaketa eta mobilizazioaren bitartez, gogotsu egin zuten lan giza eskubideen eta bakearen alde 70 eta 80ko hamarkadetan. Argentinako Maiatzaren Plazako Amak, El Salvadorreko Desagertu eta Erahildako Politikoen Ama eta Senideen Batzordea (COMADRES) edota Guatemalako Alargunen Koordinakunde Nazioanala (CONAVIGUA) honen adibide ospetsuak dira (Magallon, 2006).

Giza eskubiden aldeko erakunde hauek, indar militar, polizial eta paramilitarrek gerra zibil eta diktaduratan zehar egin zituzten gerrako krimenen eta gizadiaren kontrako krimenen zigorgabetasunari aurre egiten diote. Zentzu horretan, Amerika arteko Giza Eskubideen Institutuko (IIDH, gaztelaniazko siglen arabera) zuzendaria den Roberto Cuellaren esanetan, Latinoamerikako egia, justizia eta konpontze prozesuak emakumeek hasi zituzten, Egiaren Batzordeek hasitako prozesuak baino askoz lehenago: “Erresistentziarekin hasi ziren, eta hau ekintza askok osatutzen dute, hala nola, biktimak laguntzeak, giza eskubideen defentsak, beldurrak eta mehatxuei aurre egitea eta desagertutako pertsonak bilatzeak. Emakumeen mugimendu ausartek kalera irten eta ekintza horiek abiatu zituzten. Hala, bada, biktimen ‘ama eta senide’ horiek giza eskubideen aldeko mugimenduaren historia aldatu eta agertoki politikoaren protagonista bihurtu ziren eskualde horretan” (Cuéllar, 2011: 8).

Diktadurak eta gatazka armatuak bukatutakoan ere, emakumeek egia, justizia eta konpontzea lortzeko agendaren sustatzaile nagusiak izaten jarraitzen dute. Izan ere, ekintza anitzen buru dira: desagertutako

pertsonak bilatu, giza eskubideen urraketak publikoki salatu, gorpuak lurretik atera, kasu eta auzien ikerketa judizialak egin, oroigarriak eraiki; bakerako hezkuntza sustatu, etab.

#### 4.5. Kalteen konpontze integrala

2007an, emakumeen eta nesken konpontzerako esku-bidearen gaineko nazioarteko topaketa ospatu zen Nairobiri, Kenian. Hau konpontzeen esparruan azpimarratu beharreko inizatiba izan zen. Bertan, giza eskubideen aldeko eta emakumeen erakundeetako ki-deak eta gatazka egoeran izandako sexu-indarkeriaren biktima ziren hainbat emakume bildu ziren, kontinente guztietatik etorritakoak. Topaketaren emaitza “Emakumeek eta neskek errekurtsioa jartzeko eta konpontzea lortzeko duten eskubidearen gaineko Nairobiko Deklarazioa” izan zen (Zenbaiten artean, 2007) eta, horretan, konpontzearen ikuspegi feministaren zenbait alderdi jasotzen da.

Lehenik, ikusi bezala emakumeen kontrako indarkeria gatazken aurretik ere badenez, konpontzeko ez dira nahikoak gizarteratze eta leheneratze helburuak. Emakumeen ikuspuntutik, “konpontzeak emakume eta nesken bizitzan eragina duten bidegabekeria soziokulturalen eta desberdintasun politiko eta estrukturalen eraldaketa bultzatu behar du” (*Ibid.*: 5). Hala, bada, konpontzearen ikuspegi zabalagoa lortzen da eta, horren arabera, konpontzeak emakumeen kontrako krimenen berehalako sorburu eta ondorioez haratago joan behar du eta funtsezko desberdintasunak eraldatzen saiatu.

Bigarrenik, Deklarazioak emakume eta nesken bizipenei lotuta dagoen konpontze mota defendatzen du; horrela hobeto adieraziko baitu biktimen eta hauen defendatzaileen ikuspegia. Giltzarria da, adibidez, biktimen erritmoen kontua; hau da, konpontze prozesuek emakume eta neskek nahi dutenean parte har dezaten ahalbidetu behar dute, eta ez dituzte hauek baztertu behar preskribatutako epean egiten ez badute. Giltzarri diren beste alderdiak hauek dira: pribatasun bermea, duintasuna errespetatzea, biktimen babes eta segurtasuna, eta emakumei eta neskei salaketa eta konpontzea eskatzeko prozesuan lagunduko dieten egituren beharra. Azken elementu honetarako aintzat hartu behar da helburu hau: “emakume eta nes-

ken gaitasunak sendotzea, erabakietan autonomia eta parte-hartze handiagoa lortze aldera”, kasu honetan, “euren egoerari ondoen egokitzen diren konpontze moduak beren kabuz zehazteko aukera izan dezaten” (*Ibid.*: 3).

Hirugarrenik, estatuak -nazioarteko erkidegoaren sostenguarekin- biktimen kalteak konpontzeko arduradun nagusiak badira ere, konpontze hauek emakumeen giza eskubideen urraketan erantzule diren aktore guztiak hartu behar ditu kontuan. Hau beste alderdi garrantzitsu bat da. Aktore hauen barnean, hauek: “estatuko aktoreak, atzerriko gobernuak eta gobernu arteko erakundeak, eta estatukoak ez diren aktoreak ere bai, hala nola, talde armatuak, enpresa multinazionalak, aztertzaile eta inbertitzaileak” (*Ibid.*: 2-3). Estatuaren erantzunkizunari dagokionez, Deklarazioak ohartzen du “governuek garapen proiektuak egin behar dituztela konpontzeak egin beharrez”. Konpontze programak trantsiziozko gizartearen berrekitze eta garapen prozesuen ataltzat jotzen dira, eta prozesu horretan emakumeek konpontze programetarako sarbidea lortzeko eta hauetatik onura ateratzeko ekintza bermatzaileak behar dituzte.

Azkenik, azpimarratu nahi dugu Deklarazioak “bai haien kontrako bai haien senide eta tutoreen kontrako bortxaketa fisikoak eta sexu bortxaketak pairatzen dituzten” nesken egoera espezifikoan enfasia jartzen duela. Gainera, “eskubideen urraketa larriek eragin ezberdina dute neska eta emakumeengan; izan ere, nesken erantzun fisiko, mental eta emoziozkoak ez daude horren garatuak bizipen horiei aurre egiteko” (*Ibid.*: 1). Adina eta generoa dela eta, neskek pairatzen duten bereizkeria bikoitz hau konpontzerako eskubidean kontuan hartu beharreko elementua da.





## 5. Amaierako iruzkinak

Lan honen lehenengo atalean trantsiziozko justiziaren inguruan ikusi ditugun alderdi kontzeptual eta praktikotatik, eta bigarren atalean aurkeztutako kritika feministaren argudio nagusietatik, hausnarketarako zenbait elementu ateratzen ditugu.

Lehenik eta behin, gatazka armatuetan eta errepresio garaietan gertatutako giza eskubideen urraketen biktimek eta euren senideek egindako eskaeren gainetik, trantsiziozko justizia prozesuak, mekanismo ezberdinen arteko transakzioak faboratzen dituzten irizpideek baldintzatzen dituzte, politika-egokitasunean oinarritzen direnak. Hala, justizia “zatikatuta” ematen da zenbait egoeratan. Horietan, egiarako eskubidea, gero eta maiztasun handiagoz, justizia eta konpontzerako eskubideen ordezkotzat bilakatzen da, osagarri izan beharrean.

Bigarrenik, trantsiziozko justiziaren aplikazio-ereduek eta horren inguruko eztabaida teorikoek itxurazko neutraltasuna adierazten dute genero arloan. Haatik, ez dira neutralak. Esparru honetako ikerketa eta ekin-tza feministak frogatu bezala, “neutraltasun” horrek desberdintasun sakonak ezkututzen ditu emakumeek duten justiziarako eskubideari dagokionez. Emakumeak kuantitativo eta kualitatiboki azpiordezkatuta daude giza eskubideen urraketan inguruan egia bilatzen duten prozesuetan. Hau gertatzen da, gehienbat, haiei berariaz dagozkien urraketan kasuan, hala nola, sexu-indarkeria eta migrazio behartuaren

kasuan. Aldi berean, emakumeek oztopo psikologiko, familiar, sozial, ekonomiko, kultural eta legal gogor-rrak topatzen dituzte gatazkan egindako krimenen erantzunkizun penalak eskatzerakoan. Oztopo hauek erabakigarriak dira nola salaketa egiterakoan hala epai-prozesuan eta lortzen dituzten epaietan. Izan ere, krimenen erantzuleek ez ohi dituzte zigor-epaiak jasotzen. Oztopo hauek berek mugatzen dituzte emakumeek konpontzea lortzeko dituzten aukerak; neurri positiborik ez bada, emakumeak baztertuak izaten direlako, izatez, eskubide horren erabileran.

Egia, justizia eta konpontzerako eskubidearen inguruan dagoen desberdintasunaren gainean, feminismoak kolokan jartzen ditu trantsiziozko justizia prozesuen oinarriak, eta kritikatzeko du ideologia patriarkalak eztabaida eremu teoriko eta politiko hau barrentzen duela.

Hirugarrenik, trantsiziozko justizian emakumeek pairatzen duten bazterketa eta ez ikusiaren aurrean, mugimendu feministak proposamen alternatiboak egin ditu. Hauek emakumeek bultzatutako bake eraikuntza prozesu zabaletan tartekatuta daude. Esparru honetako inizatiba feministek integritasun zentzu indartsua dute ezaugarri, hots, trantsiziozko justiziaren ikusmolde holistikoa. Horretan ez dute lekurik oinarritzeko printzipioen, hots, egia, justizia eta konpontzearen arteko transakzioek eta negoziazioek. Hau da, ez dira

elkarren baztertzailak diren printzipiotzat hartzen. Aitzitik, justiziaren galdagarritasunak horietako bateri ere uko ez egitea esan nahi du.

Azkenik, emakumeen giza eskubideen urraketek izaera estruktural eta historikoa dutenez gero, krimen horiei dagokien justizia gatazketan gertatutakoaz haratago doa. Alegia, emakumeen kontrako indarkeriaren kasuan, egia onartzeko, justizia egiteko eta konpontzea bermatzeko Doris Ardilaren (d.g.: 2) sailkapeneko helburuetako bi hauek bete behar dira: “a) indarkeriaren eta gerrako krimenen justifikazio ideologikoa (politikoa, kulturala, ekonomikoa, etab.) agerian uztea eta, hala,

horri lotutako balore sistema eraisteko aukera gizarteari eskaintzea; eta b) egiturazkoa den gizarte bidegabekeria egoeraren kausak desagertarazten laguntzea, urraketak errepikatuko ez direla bermatuz”. Beste modu batera esanda, konpontze politikak emakumeen kontrako indarkeria estruktural eta kulturalari aurre egiten saiatzen ez badira, porrot egingo dute seguru.

## Bibliografia

- ABRIL STOFFELS, Ruth (2008), *Darfur: donde la rendición de cuentas por crímenes sexuales es la excepción y la impunidad es la regla*, “Justicia para las mujeres. Rendición de cuentas de crímenes sexuales en post-conflicto” kongresuan aurkeztutako testua, FRIDE eta LolaMora/Worldcom Foundation, Brusela, maiatzaren 13 eta 14an, hemen eskuragarri: <[http://www.fride.org/uploads/OP\\_Darfur\\_impunidad\\_agresiones\\_ESP\\_jul08.pdf](http://www.fride.org/uploads/OP_Darfur_impunidad_agresiones_ESP_jul08.pdf)>.
- ARDILA, Doris (d.g.), *Justicia transicional: principios básicos*, hemen eskuragarri: <<http://escolapau.uab.cat/img/programas/derecho/justicial/doc004.pdf>>.
- BACIC, Roberta (2002), “The Truth and Reconciliation Commission in Chile”, hemen: RANDLE, Michael (argtz.), *Challenge to Nonviolence*, Issues in Peace Research, University of Bradford, 291-304.
- BAUTISTA RELEVO, Ana Jimena eta Mariela INFANTE ERAZO (2009), *Crítica feminista a los procesos de justicia transicional de América Latina*, hemen eskuragarri: <<http://www.uasb.edu.ec/UserFiles/369/File/PDF/CentrodeReferencial/Temasdeanálisis2/educacionenparalosderechoshumanos/articulos/actualidad/criticafeministaalosprocesosdejusticiatransicional.pdf>>.
- BOTMAN, H.R. y R.M. PETERSEN (argtz.) (1996), *To Remember and To Heal. Theological and Psychological Reflections on Truth and Reconciliation*, Human and Rousseau, Cape Town (Hegoafrika).
- CAICEDO, Luz Piedad *et al.* (2009), *Guía para llevar casos de violencia sexual. Propuestas de argumentación para enjuiciar crímenes de violencia sexual cometidos en el marco del conflicto armado colombiano*, Corporación Humanas, Bogotá, hemen eskuragarri: <[http://www.humanas.org.co/archivos/Guia\\_para\\_llevar\\_casos\\_de\\_violencia\\_sexual.pdf](http://www.humanas.org.co/archivos/Guia_para_llevar_casos_de_violencia_sexual.pdf)>.
- COMISIÓN DE ESCLARECIMIENTO HISTÓRICO (1999), *Guatemala: Memoria del silencio*, Guatemala.
- CLADEM (2007), *Monitoreo sobre la violencia sexual en conflicto armado en Colombia, El Salvador, Guatemala, Honduras, Nicaragua y Perú*, Comité de América Latina y el Caribe para la Defensa de los Derechos de la Mujer, Lima, Peru, hemen eskuragarri: <[http://cladem.org/index.php?option=com\\_rokdownloads&view=file&Itemid=115&id=1018:monitoreo-sobre-violencia-sexual-en-conflicto-armado-en-colombia-el-salvador-guatemala-honduras-nicaragua-y-peru](http://cladem.org/index.php?option=com_rokdownloads&view=file&Itemid=115&id=1018:monitoreo-sobre-violencia-sexual-en-conflicto-armado-en-colombia-el-salvador-guatemala-honduras-nicaragua-y-peru)>.
- CONSEJERÍA EN PROYECTOS (PCS) (2007), *Justicia y reparación para mujeres víctimas de violencia sexual en contextos de conflicto armado interno*, Nazioarteko Mintegia, Lima, Peru, hemen eskuragarri: <<http://new.pensamientopenal.com.ar/16062009/genero04.pdf>>.
- CUÉLLAR, Roberto M. (2011), “Presentación”, hemen: Zenbaiten Artean *Contribución de las políticas de verdad, justicia y reparación a las democracias en América Latina*, Instituto Interamericano de Derechos Humanos (IIDH), San José (Costa Rica), 7-9, hemen eskuragarri: <<http://biblioteca.hegoa.ehu>>.

- es/system/ebooks/19015/original/Politicad\_de\_verdad\_justicia\_y\_reparacion.pdf?1346753084>.
- ECAP eta UNAMG (2009), *Tejidos que lleva el alma. Memoria de las mujeres mayas sobrevivientes de violación sexual durante el conflicto armado*, F&G Editores, Guatemala, hemen eskuragarri: <<http://biblioteca.hegoa.ehu.es/system/ebooks/18090/original/Tejidosquellaveaelalma3.pdf?1283851099>>.
- EL JACK, Amani (2003), *Género y conflictos armados, Informe General*, BRIDGE, Institute of Development Studies (IDS), Universidad de Sussex, Brighton, hemen eskuragarri: <<http://www.bridge.ids.ac.uk/reports/Conflictos%20Armados-Overview%20Report.pdf>>.
- FORCADA BARONA (2011), *Derecho Internacional y Justicia Transicional. Cuando el Derecho se convierte en religion*, Cuadernos Civitas, Thomson Reuters, Aranzadi Argitaletxea, Nafarroa.
- GARRETÓN, Roberto (2004), “Verdad y justicia, condiciones de una democracia sólida”, hemen: SIEMENS, María Ángeles *et al.* (argtz.), *Crisis humanitarias, post-conflicto, reconciliación*, III. lib., Comité Español de ACNUR y Globalitaria, Madril, 93-100.
- GUILLEROT, Julie (2011), *Reparaciones con perspectiva de género*, consultoría para la Oficina en México del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos (OACNUDH), Mexiko, D.F.
- HAYNER, Priscilla B. (1994), “Fifteen Truth Commissions - 1974 to 1994: A Comparative Study”, *Human Rights Quarterly*, 16. lib., 4 zk., azaroa, 597-655, hemen eskuragarri: <<http://people.umass.edu/leg480/Fifteen%20Truth%20Commissions..pdf>>.
- HARRIS, P. y B. REILLY (argtz.) (1998), *Democracy and Deep-Rooted Conflict: Options for Negotiators*, Institute for Democratic and Electoral Assistance (IDEA), Stockholm (Suedia).
- HUMAN RIGHTS WATCH (1996), *Shattered Lives: Sexual Violence during the Genocide and its Aftermath*, New York, hemen eskuragarri: <<http://www.hrw.org/reports/1996/Rwanda.htm>>.
- KELLY, Liz (2000), “Wars Against Women: Sexual Violence, Sexual Politics and the Militarised State”, hemen: JACOBS, Susie, Ruth JACOBSON eta Jen MARCHBANK (argtz.), *States of Conflict: Gender, Violence and Resistance*, Zed Books, Londres eta New York, 45-65.
- KUMAR, Corinne (2011), “Los Tribunales de Mujeres”, hemen: *Boletín Institucional*, nº 13: Entre mujeres del mundo, Ruta Pacífica de las Mujeres, azaroa, 19-21.
- LIRA, Elisabeth (2010), *Memoria y convivencia democrática: políticas de olvido y memoria*, FLACSO, San José (Costa Rica), hemen eskuragarri: <<http://revistas.mes.edu.cu/greenstone/collect/repo/import/repo/20120308-29/9789977681870.pdf>>.
- LYONS, Amanda (2011), “Reconocer la discriminación de género: la igualdad como un requisito para el desarrollo de políticas de justicia transicional legítimas y eficaces”, hemen: MORENO, María Camila *et al.* (argtz.), *Políticas públicas que hacen justicia: cuatro temas en la agenda de reparación en Colombia*, Centro Internacional para la Justicia Transicional, Bogotá, hemen eskuragarri: <<http://ictj.org/sites/default/files/ICTJ-PNUD-Pol%C3%ADticas%20p%C3%BAblicas%20que%20hacen%20justicia.pdf>>.
- MAGALLÓN, Carmen (2006), *Mujeres en pie de paz*, Siglo XXI, Madril.
- MARTÍN BERISTAIN, Carlos (2000), *Justicia y Reconciliación. El papel de la verdad y la justicia en la reconstrucción de sociedades fracturadas por la violencia*, Lan-koaderno 27, Hegoa, Bilbo, hemen eskuragarri: <[http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/120/Cuaderno\\_de\\_trabajo\\_27.pdf?1304002052](http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/120/Cuaderno_de_trabajo_27.pdf?1304002052)>.
- MARTÍN BERISTAIN, Carlos (2009), *Diálogos sobre la reparación. Qué reparar en los casos de violaciones de derechos humanos*, Ministerio de Justicia y Derechos Humanos de Ecuador, Quito, hemen eskuragarri: <[http://biblioteca.hegoa.ehu.es/system/ebooks/18235/original/Dialogos\\_sobre\\_reparacion\\_n.pdf?1294998586](http://biblioteca.hegoa.ehu.es/system/ebooks/18235/original/Dialogos_sobre_reparacion_n.pdf?1294998586)>.
- MÉNDEZ, Juan E. (2000), “Latin American Experiences of Accountability”, hemen: AMADIUME, I. y AN-NA’IM, A. (argtz.), *The Politics of Memory:*

- truth, healing and social justice*, Zed Books, Londres eta New York, 127-141.
- MENDIA AZKUE, Irantzu eta Gloria GUZMÁN ORELLANA (argtz.) (2012), *Ni olvido, ni silencio. Tribunal de Conciencia contra la violencia sexual hacia las mujeres durante el conflicto armado en Guatemala*, Hegoa (Bilbo) eta UNAMG (Guatemala), hemen eskuragarri: <[http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/279/Ni\\_olvido,\\_ni\\_silencio.pdf?1342173748](http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/279/Ni_olvido,_ni_silencio.pdf?1342173748)>.
- MERTUS, Julie (2000), "Truth in a Box: The Limits of Justice through Judicial Mechanisms", hemen: AMADIUME, I. eta A. AN-NA'IM (argtz.), *The Politics of Memory: truth, healing and social justice*, Zed Books, Londres eta New York, 142-161.
- MONTES, Laura (2006), *La violencia sexual contra las mujeres en el conflicto armado: un crimen silenciado*, Centro para la Acción Legal en Derechos Humanos (CALDH), Guatemala.
- MOSTOV, Julie (1995), "'Our Women'/'Their Women'. Symbolic Boundaries, Territorial Markers, and Violence in the Balkans", *Peace and Change*, 20. lib., 4. zk., 515-529.
- NAZIO BATUAK (2004), *El Estado de derecho y la justicia de transición en las sociedades que sufren o han sufrido conflictos*, Segurtasun Kontseilurako Idazkari Nagusiaren txostena, abuztuak 3 (S/2004/616), hemen eskuragarri: <<http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/2004/616>>.
- NAZIO BATUAK (2005), "*Principios y directrices básicos sobre el derecho de las víctimas de violaciones manifiestas de las normas internacionales de derechos humanos y de violaciones graves del derecho internacional humanitario a interponer recursos y obtener reparaciones*", 60/147 Ebazpena Batzar Nagusiak onartuta 2005eko abenduaren 16an, hemen eskuragarri: <<http://www2.ohchr.org/spanish/law/reparaciones.htm>>.
- NAZIOARTEKO AMNISTIA (1998), *El caso del general Pinochet. La jurisdicción universal y la ausencia de inmunidad para los crímenes de lesa humanidad*, EUR 45/21/98/s Dokumentua, urria.
- NAZIOARTEKO AMNISTIA (2002), *Rwanda: Gacaca-gambling with justice*, Prentsa komunikatua, hemen eskuragarri: <<http://web.amnesty.org>>.
- NAZIOARTEKO AMNISTIA (2005), *Los efectos de las armas en la vida de las mujeres*, hemen eskuragarri: <<http://www.amnesty.org/es/library/info/ACT30/001/2005>>.
- ORÉ AGUILAR, Gaby (2005), "Género y justicia en sociedades en transición: una aproximación desde los derechos humanos", *InfoCIP: Justicia Internacional y Género*, 7. zk., Centro de Investigación para la Paz (CIP), azaroa, 1-4.
- ORÉ AGUILAR, Gaby (2006), "Derecho a la reparación y género en los conflictos armados", hemen: GÓMEZ ISA, Felipe (zuz.), *El derecho a la memoria*, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea, 77-100.
- ORÉ AGUILAR, Gaby eta Felipe GÓMEZ ISA (2007), *Rethinking Transitions. Equality and Social Justice in Societies Emerging from Conflict*, Intersentia, Cambridge.
- PARIS, Roland (2004), *At war's end: building peace after civil conflict*, Cambridge University Press, New York.
- REES, Madeleine (2002), "International intervention in Bosnia-Herzegovina: the cost of ignoring gender", hemen: COCKBURN, Cynthia eta Dubravka ZARKOV (argtz.) (2002), *The Postwar Moment: Masculinities and International Peacekeeping*, Lawrence&Wishart, Londres.
- RIGBY, Andrew (2001), *Justice and reconciliation: after the violence*, Lynne Rienner, Boulder (Colorado) eta Londres.
- RUBIO-MARÍN, Ruth (argtz.) (2006), *What happened to the women? Gender and Reparations for Human Rights Violations*, International Center for Transitional Justice (ICTJ) eta Social Sciences Research Council (SSRC), New York.
- SAPRIZA, Graciela (2009), "Memorias de mujeres en el relato de la dictadura (Uruguay, 1973-1985). Violencia / cárcel / exilio", *Deportate, esuli, profughe. Revista telematica di studi sulla memoria femminile*, 11. zk., 64-80, hemen eskuragarri: <[http://www.unive.it/media/allegato/dep/n\\_1speciale/05\\_Sapriza.pdf](http://www.unive.it/media/allegato/dep/n_1speciale/05_Sapriza.pdf)>.

- SARKIN, Jeremy (2001), "The tension between justice and reconciliation in Rwanda: politics, human rights, due process and the role of the Gacaca courts in dealing with the genocide", *Journal of African Law*, 45. li., 2. zk., 143-172.
- SEGURA, Nora (1998), "Desplazamiento en Colombia: perspectivas de género", *Revista Foro*, 34. zk., ekaina, Foro Nacional por Colombia, Bogotá.
- SCOTT, Colleen (1999), "Thoughts on Reconciliation and Reality", hemen: *People Building Peace. 35 Inspiring Stories from Around the World*, European Centre for Conflict Prevention, Utrecht, 352-358.
- SIMON, Jan-Michael (2002), *State-sponsored mass violence: Criminal Accountability and "Reconciliation"*, Max Planck Institute for Foreign and International Criminal Law, Freiburg, Alemania, 1-22.
- SISMA MUJER (d.g.), *Violencia Sexual, Conflicto Armado y Justicia en Colombia*, Corporación Sisma Mujer, Bogotá.
- THEISSEN, Gunnar (2001), "Supporting Justice, Co-Existence and Reconciliation after Armed Conflict: Strategies for Dealing with the Past", *Berghof Handbook for Conflict Transformation*, hemen esku-ragarri: <[http://www.berghof-handbook.net/documents/publications/theissen\\_handbook.pdf](http://www.berghof-handbook.net/documents/publications/theissen_handbook.pdf)>.
- UNAMG, ECAP y MTM (2012), "Rompiendo el silencio sobre la violencia sexual contra mujeres durante el conflicto armado en Guatemala", hemen: MENDIA AZKUE, Irantzu eta Gloria GUZMÁN ORELLANA (argtz.) (2012), *Ni olvido, ni silencio. Tribunal de Conciencia contra la violencia sexual hacia las mujeres durante el conflicto armado en Guatemala*, Hegoa (Bilbo) eta UNAMG (Guatemala), hemen esku-ragarri: <[http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/279/Ni\\_olvido,\\_ni\\_silencio.pdf?1342173748](http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/279/Ni_olvido,_ni_silencio.pdf?1342173748)>.
- VALDEZ, Patricia (2002), "La historia del futuro", hemen: ZENBAITEN ARTEAN, *Verdad, Memoria, justicia y reconciliación. Sociedad y Comisiones de la Verdad*, Asociación Pro-Derechos Humanos (APRODEH), Lima, 15-20.
- VALENCIA VILLA, Hernando (2007), *Introducción a la justicia transicional*, "Julio Cortázar" latinoamerikar katedran egindako hitzaldia, Universidad de Guadalajara, Mexiko, azaroak 26, hemen esku-ragarri: <<http://escolapau.uab.cat/img/programas/derecho/justicia/seminariojt/tex03.pdf>>.
- VANDENBERG, Martina (2005), "Peacekeeping, Alphabet Soup, and Violence Against Women in the Balkans", hemen: MAZURANA, Dyan, Angela RAVEN-ROBERTS eta Jane PARPART (argtz.), *Gender, Conflict and Peacekeeping*, Rowman & Littlefield Publishers, Lanham (AEB), 150-167.
- VINYES, Ricard (2011), *Asalto a la memoria. Impunidades y reconciliaciones, símbolos y éticas*, Los libros del lince, Bartzelona.
- ZARKOV, Dubravka (2006), "Towards a New Theorizing of Women, Gender, and War", hemen: DAVIS, Kathy, Mary EVANS eta Judith LORBER (argtz.), *Handbook of Gender and Women's Studies*, Sage Publications, Londres.
- ZARKOV, Dubravka (2007), *The Body of War. Media, Ethnicity, and Gender in the Break-Up of Yugoslavia*, Duke University Press, Durham eta Londres.
- ZENBAITEN ARTEAN (2007), *Declaración de Nairobi sobre el derecho de las mujeres y las niñas a interponer recursos y obtener reparaciones*, hemen esku-ragarri: <[http://www.fidh.org/IMG/pdf/Declaracion deNairobi-es.pdf](http://www.fidh.org/IMG/pdf/Declaracion_deNairobi-es.pdf)>.

## EGILEENTZAKO ARAUAK

### Jatorrizko lanak bidaltzea

Erredakzio Kontseiluak zehatz aztertuko ditu aldizkariak duen xedeari loturik bidaltzen dizkioten lan guztiak. Artikuluak argitaragarbeak izango dira, beste hedabide batean argitaratu emateko inoiz aurkeztu gabeak.

Posta elektronikoko helbide honetara bidali beharko dira: hegoa@ehu.es. Posta elektronikoa bidez harremanetan jarriko gara artikulu sinatzen duen pertsona batekin (lehen egilearekin, berariaz bestelakorik adierazten ez bada), eta bidalitako lana hartu izanaren agiria igorriko diogu.

### Aurkeztutako lanak ebaluatzea

Jasotako artikuluak ebaluatzen hasteko, behar bezala bete beharko dira *Hegoa Lan-koaderno* ediziorako arau guztiak. Ebaluazioaren bidez, kalitate gehien duten lanak hautatuko dira, aldizkariaren izaera dela-eta jatorrizko lanen kopuru mugatua baizik ezin baita argitaratu. Prozesu horretan, Erredakzio Kontseiluak hasierako aukeraketa egingo du, eta Argitalpen Kontseiluko kide aditu batek edo kontseilu horrek izendatutako lagun batek berrikusketa egingo du gero. Azken kasuan, kanpoko beste aditu batzuek egin ahal izango dute berrikusketa. Erredakzio Kontseiluak artikuluen egileei jakinaraziko die testua onartu ala baztertu den, eta, era berean, berrikusi behar ote den.

### Argitaratzeko arauak

Egileei berariaz eskatzen zaie arreta handiz berrikusi ditzaten testua eta erabilitako terminologia, eta alde batera utz ditzaten formulazio nahasgarriak eta espezializatuak den jargoia ere bai. Horrez gain, sexista ez den hizkera erabiltzea gomendatzen dugu.

Testua 12 zenbakiko Arial letrarekin idatziko da, gehienez 50 orri izango ditu (DIN-A4 tamainakoak), eta orri bakoitzean 3.000 karaktere sartuko dira gehienez (espazioak ere barne hartuta), oharrak eta bibliografiako aipamenak aintzat hartu gabe. Oharrek ez dute 5 orri baino gehiago hartuko, eta aipamen bibliografiakoek, beriz, 7 orri. Oharrak orriaren oinaldean jarriko dira, eta zenbakituta joango dira, elkarren hurreneko zenbaki arabiarrekin. Testua *doc* (Microsoft Office Word) edo *odt* (OpenOffice Writer) formatuan aurkeztuko da.

Ez da ezer azpimarratuko, ez eta letra lodiz idatziko ere, izenburuetan izan ezik: izenburuak letra lodiz idatziko dira, 14 tamainan, eta 1., 1.1., 1.1.1., 2... eskemaren arabera zenbakituta. Testuko esaldi edo hitzen bat nabarmendu nahi izanez gero, letra etzanez idatziko da. Dezimalak idazteko, koma erabili beharko da beti.

Bidaltzen diren artikuluen lehenengo orrian, izenburuaren eta egilearen edo egileen aipamenaren ondoren, datu hauek azalduko dira: izena, abizenak, posta elektronikoa eta instituzioko datuak edo lantokia. Laburpen bat jasoko da, gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz; gehienez bost hitz gako hautatuko dira, artikuluen edukien

adierazgarri, eta horiek ere gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz jarriko dira.

Euskaraz edo ingelesez idatzita dauden testuei dagokien, egileek berek aurkeztu beharko dute gaztelaniazko itzulpena.

Sartzen diren koadroak, irudiak, taulak eta mapak testuan ondo txertatu beharko dira, behar bezala ordenatuta, eta jatorrizko iturrien identifikazioa zehaztuta. Izenburu egokiak izango dituzte, edukiaren adierazgarri. Koloreak erabiliz gero, erabili grisena eskala, eta bereizi lerroak sinbolo edo trazadura desberdinekin, aleak zuri-beltzean inprimatuko baitira. Hauek guztiak, gainera, *pdf*, *xls* (Microsoft Office Excel) edo *ods* (OpenOffice Calc) formatuetan bidali beharko dira bakoitza bere aldetik. Irudiekin batera, oinarriko datuak dituzten fitxategiak bidaliko dira.

Egileak egokitzen jotzen duenean, formula matematikoa zenbakituko ditu, zenbaki arabiarrek erabiliz, kortxete artean jarrita formularen eskuinaldean. Formula matematikoei eta testuei gainerako sinbolo guztiak, *pdf* formatuan bidali beharko dira.

Aipamen bibliografiakoak testuan sartuko dira, parentesi artean, eta egilearen abizena, eta, jarraian (koma baten ondoren) argitalpen-urtea (a, b, c, eta abar bereizita, elkarren hurreneko ordenan, zaharretik berrienera, egile beraren urte bereko lan bat baino gehiago aipatuz gero), eta, hala behar denean, orria adieraziko dira.

Adibidez:

(Keck eta Sikink, 1998)

(Keck eta Sikink, 1998; Dobbs *et al.*, 1973)

Oharra: *et al.* erabiliko da hiru egile edo gehiago direnean.

(Goodhand, 2006: 103)

(FAO, 2009a: 11; 2010b: 4)

(Watkins eta Von Braun, 2003: 8-17; Oxfam, 2004: 10)

Lanaren amaieran, zerrenda bibliografiako osoa jarriko da, egileen araberrako hurrenkera alfabetikoan, eta ondoko formak erabiliz, artikulua aldizkarian, liburuan edo liburu bateko kapituluaren atera den bereiziz. Hala behar denean, parentesi artean jarriko da lehen edizioaren edo jatorrizko bertsioren data.

Aldizkariako artikulua:

SCHIMDT, Vivien (2008): "La democracia en Europa", *Papeles*, 100, 87-108.

BUSH, Ray (2010): "Food Riots: Poverty, Power and Protest", *Journal of Agrarian Change*, 10(1), 119-129.

Liburua:

AGUILERA, Federico (2008): *La nueva economía del agua*, CIP-Ecosocial y Los libros de la catarata, Madril.

LARRAÑAGA, Mertxe eta Yolanda Jubeto (arg.) (2011): *La cooperación y el desarrollo*

*humano local. Retos desde la equidad de género y la participación social*, Hegoa, Bilbo.

Liburuko atala:

CHIAPPERO-MARTINETTI, Enrica (2003): "Unpaid work and household well-being", hemen: PICCHIO, Antonella (arg.): *Unpaid Work and the Economy*, Routledge, Londres, 122-156.

MINEAR, Larry (1999): "Learning the Lessons of Coordination", hemen: CAHILL, Kevin (arg.): *A Framework for Survival. Health, Human Rights and Humanitarian Assistance in Conflicts and Disasters*, Routledge, New York eta Londres, 298-316.

Webetik hartutako baliabideei dagokien, behar diren datuak aipatuko dira, liburua, liburuko artikulua, aldizkaria edo egunkari artikulua den kontuan hartuta. Argitalpen elektronikoa den data eta aipua hartu zen eguna jasoko dira, parentesi artean, bai eta helbide elektronikoa edo url-a ere, < > ikurren artean, "hemen dago eskuragarri" esaldiaren atzetik. Adibidez:


NDF (2007): "Declaración de una misión del personal técnico del FMI en Nicaragua", hemen: *Comunicado de Prensa*, 07/93 zk., 2007ko maiatzaren 11 (2007ko abuztuaren 8an kontsultatua), hemen dago eskuragarri: <<http://www.imf.org/external/np/sec/pr/2007/es/pr0793.htm>>.

ELGA (2001), *The DAC Guidelines: Helping Prevent Violent Conflict*, Development Assistance Committee (DAC), Paris (2010eko irailaren 10ean kontsultatua), hemen dago eskuragarri: <<http://www.oecd.org/dataoecd/15/54/1886146.pdf>>

Sigla edo laburdura bat lehenengo aldiz erabiltzean, bere esanahi osoa adierazi beharko da eta, horren ondoren, parentesi artean, gero baliatuko den sigla edo laburdura jasoko da.

## COPYRIGHT-AREN OHARRA

*Hegoa Lan-koadernoak* saillean argitaratzen diren artikulua guztiak, Creative Commons lizentzia honekin argitaratuko dira:



Orrri honetan aurkituko dituzun agiriak Creative Commons lizentziaren babestuta daude.

Lizentzia osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Artikuluaren egileak edo egileek berariaz onartu beharko dute horrela.

